

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 23a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2009an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2009an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren lehendakariak idazki bat aurkeztu du, zeinaren bidez jakinarazi baitu aipatu kontseiluak 2009an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena onetsi duela eta eskatu baitu dagokion batzordean aurkez dadila. Idazki hori ikusita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 206.1 artikularekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2009an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Xedatzea txostena Ekonomia eta Ogasun Batzordean aurkez dadin.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2009an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena

AURKIBIDEA

SARRERA (4. or.).

I. ZATIA: CoAN KONTSEILUAREN JARDUEREN MEMORIA (5. or.).

1. Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideek eskainitako edukien kalitatea handitzeko ekarpena (5. or.).

1.1. Nafarroan ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010 ("CoAN Kodea") (5. or.).

1.2. Autoerregulazio-jarduerak sustatzea Nafarroako operadoreengan: 'Edukien Kalitate-rako gutuna haurrak babesteko ordutegian' (6. or.).

1.3. Eskualdeko telebisten programazio-edukiei buruzko azterlan espezifikoak (6. or.).

2. Bultzada Nafarroako ikus-entzunezko sektoreari (7. or.).

2.1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008 (7. or.).

2.2. Babesa lurreko telebista digitala Nafarroan behin betiko ezartzeko prozesuari (9. or.).

2.3. 4/2009 foru-dekretua, urtarrilaren 19koa, adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duena (10. or.).

3. Ikus-entzunezkoei buruzko legedia betetzeko modua Nafarroan (11. or.).

3.1. Ikus-entzunezko operadoreak eta ikus-entzunezkoei buruzko legedia (11. or.).

3.2. CoAN kontseilua eta Nafarroako irrati- eta telebista-operadoreek emititu dituzten edukien jarraipena (14. or.).

3.3. Nafarroako administrazio publikoek ikus-entzunezko komunikabideekin adostutako akordioen eta publizitate instituzionalaren jarraipena (15. or.).

4. Nafarroako herritarren eta ikus-entzunezko bitartekoen arteko harremana (17. or.).

4.1. Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa (ODA) (17. or.).

4.2. CoAN kontseilua eta adingabekoen babesa (20. or.).

4.3. 'Familia eta Ikus-entzunezko Pantailak 2009' kanpaina (21. or.).

5. CoAN kontseiluaren barne-funtzionamendua (22. or.).

5.1. Osaera (22. or.).

- 5.2. Egoitza (22. or.).
- 5.3. Plantilla organikoa eta langileak (22. or.).
- 5.4. Aurrekontua 2009. urtean (23. or.).
- 5.5. Ondasunen eta eskubideen inbentarioa (25. or.).
- 5.6. Agenda instituzionala 2009. urtean (25. or.).

II. ZATIA. IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN PANORAMIKA (27. or.).

- 6. Telebistaren panoramika Nafarroan (28. or.).
 - 6.1. Sarrera (28. or.).
 - 6.2. Nafarroako telebista-sektorearen azterketa (29. or.).
 - 6.3. Arau-esparru berriari buruzko aurreikuspenak (38. or.).

- 7. Irratiaren panoramika Nafarroan (39. or.).
 - 7.1. Sarrera (39. or.).
 - 7.2. Nafarroako irradi-sektorearen azterketa (41. or.).
 - 7.3. Arau-esparru berriari buruzko aurreikuspenak (47. or.).
- 8. Ikus-entzunezkoen sektorearen etorkizuna (47. or.).
 - 8.1. Telebistaren sektoreko etorkizuneko ildoak (48. or.).
 - 8.2. Irratiaren sektoreko etorkizuneko ildoak (50. or.).

CoAN KONTSEILUAK 2009AN EGINIKO JARDUERAREN ADIERAZLEAK (51. or.).

SARRERA

Ikus-entzunezko sektoreak garai erabakigarriak bizi izan ditu 2009. urtean. Mundu osoan eta enpresa-sektore guztietan indarrean dirauen krisi ekonomikoak ageriko eragina izan du Nafarroako Foru Komunitatean jarduten duten ikus-entzunezko eragileetan, eta, batik bat, programazioko eta marketineko estrategietan, tokian tokiko produkzioetan, haien zabaltze-plangintzetan, eta, zoritxarrez, haien langileen egoeran. Hala ere, atzeraldi ekonomiko horrek eta sektorean izan dituen ondorio kaltegarriek ez dituzte bertan behera utzi garrantzi handiko zenbait jarduera.

Nafarroako ia etxe guztietan izan duen eraginari erreparatuta, nabarmentzekoa da Nafarroako Foru Komunitatean egin den **“itzalaldi analogikoa”**, Nafarroako Foru Komunitatean bi faseetan egin dena. Ekainean Erriberan eta Lizarrerriko hegoaldean egin zen itzalaldiaren arrakastak iragarri egin zuen 2009ko ekainaren 10ean Nafarroako gainerako lurraldeetan eginen zen itzalaldiaren emaitza ona. Egia da Nafarroako zenbait lekutan arazo batzuk daudela oraindik seinale digitala hartzeko —hori logikoa da, teknologia-aldaketa handia izan dela aintzat hartzen bada—, baina, oro har, esan daiteke urte luzetan egindako lanak emaitza onak eman dituela. Hala, zoriontzekoa da egindako lan hori, baina ez dugu ahaztu behar badirela beste erronka batzuk Lurreko Telebista Digitalaren inguruan.

Nafarroa arlo horretan aitzindaria izan dela adierazten dute, besteak beste, CoAN kontseiluak 2009an bultzatu eta egin dituen bi ekintzak.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da indarrean jarri dela **urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretua, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabilera erregulatzen duena**. Arau horren bidez, Espainiako gainerako lurraldeetan baino lehenago jarri da indarrean, Nafarroan, adingabeko pertsonak babesteari berariazko arreta ematen dion arau-esparru bat. Zehazki, 2009. urtearen hasieratik aurrera, derrigorrean bete behar dira Nafarroan babes sendotuko ordutegiak, eta arau horiek, babes-maila apalagokoak izanda ere, ez dira Espainiako gainerako lurraldeetako araudietan indarrean jarri 2010. urteko erdialdera arte.

Eta, bigarrenik, 2009ko azaroan, **‘Nafarroan ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010’** (“CoAN Kodea”) izenpetu zen. Agiri horrek koerregulazioa arautzen du sektoreko arauak eta deontologia profesionalekoak antolatuta eta aplikatzeko, Europako Batzorde-

ak adierazitako irizpideei betez eta, beste behin ere, Espainiako gainerako lurraldeei aurre hartuz.

Aipatzekoa da, halaber, **Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua (INAAC)** sortu dela 2009an, eta CoAN kontseiluak haren garapenean parte hartzea espero duela, harekin konpartitzen baititu, neurri batean, helburuak eta jarduera-eremuak.

Horrez gainera, azken urtean ezin izan dira konpondu zenbait auzi, agiri hau idazten amaitzeko garaian oraindik argitu gabe jarraitzen baitute:

Telebistaren esparruan, aurrerapenak egin dira Nafarroan **ETB-1, ETB-2 eta Aragón Televisión** telebista-kateen seinaleak LTDaren bidez hartzeko, baina 2010aren erdialdean oraindik ez da prozesua erabat amaitu. Finean, aukera horiek emanda, Nafarroako teleikusleek aukera gehiago izanen dituzte informazioa jasotzeko eta entretenimenduetarako iristeko.

Arazo gehiago ditu **irradi-difusioaren sektoreak** Nafarroan. Gure erkidegoak arau-esparru zaharkitua du arlo horretan, eta, denborak aurrera egin ahala, arazoak gero eta larriagoak dira. CoAN kontseiluak proposatzen du berariazko foru-dekretu bat ematea irradi-difusioari buruzko legedia XXI. mendearen eskakizunetara egokitzeko. Arau horren bidez, aurre eginen zaie egungo arazoei, geroz eta larriagoak direnak, arau-esparrua ez baitator bat egungo errealitatearekin.

Ikus-entzunezko sektorearen araupenak aldaketa handiak izanen ditu 2010eko maiatzaren 1ean, egun horretan hartuko baitu indarra **martxoaren 31ko 7/2010 Legeak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorrak**. Hemen, Nafarroan, batetik, legedia aldatu beharko da —zehazki, 18/2001 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena—, eta, bestetik, egiturazko aldaketak egin beharko dira, jardun-arau berriak ezarriko baitira telebistaren eta irratiazen sektoretarako.

Jardun-testuinguru horretan, **CoAN** kontseiluak lanean jarraituko du ikus-entzunezko sektoreak funtzionamendu egokia izan dezan Nafarroako Foru Komunitatean, eta, horretarako, sektoreko legediak arautzen dituen eskumenak baliatuko ditu, aurreko urtean, 2009an egin izan duen moduan. Hona hemen, beraz, Urteko Txosten honetan azalduak, 2009an egindako jarduera horiek.

I. ZATIA: JARDUEREN MEMORIA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak (CoAN) Plangintza Estrategiko bat onartu zuen 2006-2008 eperako. Plangintza hori ezarri eta betetzeko bidea oparoa izan denez, CoAN kontseiluko batzarrak erabaki du **bigarren Plangintza Estrategiko bat egitea 2009-2011 eperako**.

Hauk dira datorren hiru urterako onartu diren **helburu estrategikoak**:

I. Ikus-entzunezko sektorea bultzatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

II. Ikus-entzunezko komunikabideei buruzko legedia betetzen dela zaintzea.

III. Ikus-entzunezko komunikabide-enpresek eskainitako edukien kalitatea handitzen dela zaintzea.

IV. Nafarroako herritarren eta ikus-entzunezko bitartekoen arteko harremanen zuzentasuna babestea.

V. Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluaren funtzionamendua sendotzea.

Helburu estrategikoak hamabi helburu operatibotan laburtzen dira (urteik urtera berrikus daitezke), eta horiek guztiak Kudeaketa Plangintza batean zehazten dira urtero.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, 2009. urtean, hirurteko Plangintza Estrategikoan zehaztutako helburuak betetzera bideratu zuen bere jarduna, eta, horrenbestez, bete egin zituen 18/2001 Foru Legeak, uztailaren 5ekoak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak, 26. artikuluan hari esleitzen dizkion eginkizunak. Hori dela eta, argitasunaren mesedetan, **5 helburu estrategikoek adierazitako jardun-ildoari jarraitzen dio 2009. Urteko Txosteneko 'Jardueren Memoriak'**.

1. KAPITULUA

NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEK ESKAINITAKO EDUKIEN KALITATEA HANDITZEKO EKARPENA

CoAN kontseiluak egiten duen lanaren helburuetako bat da Nafarroan ematen diren programaziorako eta publizitateko edukien kalitatea handitzea, eta, ildo hori jorratzeko, tresna jakin batzuk ematen dizkie operadoreei, geroz eta zerbitzu hobea eman diezaieten herritarrei.

Urte horretan, 2009an, egin den lanaren emaitza izan da 'Nafarroan ikus-entzunezko edukien

kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010' ("CoAN Kodea") izenpetu izana eta beste agiri batzuk osatu izana. CoAN kodearen ekimena, gainera, aitzindaria izan da Espainian.

1.1. NAFARROAN IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KALITATEA ZAINTEZKO KOERREGULAZIOKO KODEA 2010

2009ko azaroaren 17an, **ikus-entzunezko edukien koerregulaziorako Espainiako lehen kodea** izenpetu zen CoAN kontseiluaren egoitzan, CoAN kontseiluaren eta Nafarroako Foru Komunitatean administrazio-emakida bidez lan egiten duten hiru eskualde-telebisten artean. Horiek horrela, erakunde horretako presidente Ramón Bultó jaunak, Localia-Canal 4 Navarra telebistako zuzendari José María Tejerina jaunak, Canal 6 Navarra telebistako zuzendari Roberto Cámara jaunak eta Popular TV Navarra telebistako zuzendari Jokin San Julián jaunak berretsi egin zuten 'Nafarroan ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010' ("CoAN kodea"), eta, zehazki, 2010eko urtarrilaren 1ean hartu du indarra agiri horrek.

Koerregulaziorako ekimen horrek gaintitu egiten ditu aurretik ikus-entzunezkoen alorrean zeuden autoerregulazioko eta erregulazioko formulak, eta lehen aldia da Espainian mota horretako agiri bat formalizatzen dela; gainera, horrelako oso agiri gutxi daude Europan. Ikus-entzunezko Komunikabideen Zerbitzuei buruzko zuzentarau europarra 2007. urtean onartu zen, eta, haren bidez, Europar Batasuneko estatu kideei eskatzen zitzaizen koerregulazioaren bidea jorratzea Espainiako telebisten zenbait arazo (egun betiketzen ari direnak eta autoerregulazioaren bidez konpondu ezin izan direnak) konpontzeko.

Helburua: telebista-programazioa hobetzea

"CoAN kodearen" helburua da **eskualdeko telebista-programazioa hobetzeko jardueramoduak inplementatzea, balio eta printzipio konstituzionalekin bat egin dezan**, eta, bereziki, pluralismoa, gazteak eta haurrak babestea.

Indarreko araubideak araututakoak baino jardura zorrotzagoak arautzen ditu Kodeak, baina agiri izenpetu duten operadoreek bere egin dituzte, borondatez; beraz, agiri horretan adostutakoak ez du operadorek izan eta garatu behar duten askatasun editoriala eta enpresa-askatasuna.

Nabarmenezkoa da, ildo horretatik, **eskualdeko telebista-operadoreek lege-testuan adierazitakotik harago joateko hartu duten konpromisoa**, haurrentzat egokiak diren kalitatezko edukiak emateko prest baitaude babes-ordutegietan, bai

eta pluralismoa eta teleikusleen informazio-eskubidea zaintzeko ere.

Kode horrek ez ditu bertan behera uzten, inondik ere, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurak dituen eskumenak programazioko eta publizitateko edukiak ikuskatu, kontrolatu eta, beharrezkoa bada, haiei zehapenak jartzeko. CoAN kontseilurak, horrez gain, Kodeak ezartzen duena betetzen dela zainduko du, aldizkako azterlanak egiten ditu Kodearen artikuluguztien eta haren zatien bete-tze-mailari buruz, eta operadoreei zein gizarte osoari jakinaraziko dizkie haien emaitzak.

Kodearen sinatzaileek konpromisoa hartu dute Kodea Zaintzeko Komitean biltzeko, eta bertan adosteko haren edukiari buruzko alderdi guztiak; horrez gain, Kodea eguneratzeko aukerak aztertuko dituzte. Operadoreek kide bana izanen dute Komitean eta CoAN Kontseilurak telebista guztiak dituzten kideen adina kide izanen ditu.

Kodeak araututakoa betetzen denaren bermatzaile izanen da CoAN, eta, Kodearen eraginkortasun handia bultzatzeko, argitara emango ditu hautematen dituen urrapienak. Urrapien horiek errepikatzen badira, urratzen edo betetzen ez diren alderdi horiek berariaz arautzeko proposatuko du.

“CoAN Kodea”

“CoAN Kodeak” **hitzaurre bat, hamar atal** (Ikus-entzunezko komunikabideen erabiltzaileen eskubideak; Alfabetatze mediatikoa; Adingabeen babesak; Pluralismoa; Hauteskunde-prozesuak; Prozesu judizialak; Immigrazioa; Teleikusleei emandako informazioa; Publizitatea; eta Lehiaketan parte hartzea), **eta eranskin bat** ditu. Telebista-programen kalifikazioa egiteko irizpide batzuk ematen ditu eranskinak.

Telebista bidezko irrati-difusiorako zerbitzuak emateko titulurak dituzten telebista-operadore guztiak atxiki daitezke Koderak, haien transmisio-modua edozein dela ere. Operadore horien lurralde-estaldurak ezin du Nafarroako Foru Komunitatekoa baino handiagokoa izan, eta horien artean sartuko dira, estaldura handiagoko komunikabideena izan arren, beren emisioak eskualde-lurraldera mugatzen diren deskonexioak egiten dituzten operadoreak.

1.2. AUTOERREGULAZIO-JARDUERAK SUS-TATZEA NAFARROAKO OPERADOREENGAN: ‘EDUKIEN KALITATERAKO GUTUNA HAURRAK BABESTEKO ORDUTEGIAN’

CoAN kontseiluren eginkizunetako bat da, 18/2001 Foru Legeak arautzen duen moduan,

“ikus-entzunezkoen sektorean autoerregulazio arauak har daitezzen sustatzea”. Horren harian, beraz, CoAN kontseilurak **jarraibide batzuk eman zituen 2009an eskualde-telebistek berariaz handi dezaten, adingabeak babesteko ordutegian** (eta, batik bat, babes sendotuko ordutegian), beren programazio-eskaintzaren kalitatea. Jarraibide horien arabera, eduki “baliotsuak” jaso behar dituzte programazioan eta alde batera utzi edo programatu ez “arriskugarriak” diren edukiak.

‘Edukien kalitaterako gutuna haurrak babesteko ordutegian’ izeneko agiriak, beraz, adierazi egiten ditu haurrentzako programazioa neurtzeko eta aztertzeko **“kalitate-irizpide positiboak”** eta programazioak egitean alde batera utzi behar diren **“eduki arriskugarriak”** finkatzen; zehazki: indarkeria, sexismoa, arrazismoa, kontsumismoa, hizkuntza narriatzen duten edukiak eta ohorearen, intimitatearen eta pribatutasunaren eskubidea urratzen dutenak. Kodeak dio bereziki egokia dela, kalitatezko telebistak lortzeko, eskualdeko telebistek, pixkanaka, haurrentzako programazioak programazio osoaren gutxieneko ehuneko bat hartzea, batik bat, babes-ordutegi indartuko ordutegian.

Kodeak agiri eraginkorra izan nahi du operadoreek eskaintza anitza eta bariatua eskain dezaten haurrentzako programazioan; hau da, ikus-entzunezko eduki kalitatezkoak eskain ditzaten haurrentzat. Indarrean dauden xedapenen neurri osagarria da hori (batik bat, osagarri zaio 4/2009 Foru Dekretuari, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabilera eta erregulatzen duenari eta autoerregulazioko eta koerregulazioko akordioei), eta bere xedea da operadoreei laguntzea haurren babesak hobetzen, telebistak Nafarroako Foru Komunitatean ematen dituen edukietan.

1.3. ESKUALDEKO TELEBISTEN PROGRAMAZIO-EDUKIEI BURUZKO AZTERLAN ESPEZIFIKOAK

Eskualdeko telebistek ematen dituzten edukiei buruzko hainbat alderdi aztertzen ditu CoAN kontseilurak, berariazko azterlanen bidez. Horiek horrela, 2009. urtean, berariaz aztertu da telebistako eskualde-operadoreen barne-pluralismoa, informazio-programetan emandako albisteen gaiak eta geografia-eremuari erreparatuta. Horren helburua izan da **gaurkotasun-albisteen esparru tematikoari eskaintzen zaion denbora aztertzea eta telebista-saio horiek Nafarroako eremu ezberdinetan duten isla ikustea**.

Azterlan horrek adierazten du, gainera, bete-tze-bidean dela CoAN kontseilurak sortzeko legearen 20.1. artikulurak erakunde horri esleitzen dion eginkizunetako bat, hau da, balio eta printzipio

konstituzionalak bermatu eta sutatzeko organo independentea izatea, eta, bereziki, pluralismoa babesteko eginkizuna.

Azterlan hori egiteko, hiru asteko albistegiak aztertu ziren urtean zehar; hain justu, otsailaren 16tik 22rako astekoa, maiatzaren 4tik 10erako astekoa eta ekainaren 15etik 21erako astekoa. Zehazki, **gaurkotasun-albistegiak** ikusi eta aztertu ziren, eta, horien artean, astean zehar izandako albiste nabarmenen laburpen-saioak eta zeinuen bidezko hizkuntzari egokitutakoak: "Navarra en signos" (Popular TV), "Navarra de otra forma" (Canal 6 Navarra) eta "7 Días" (Canal 4 Navarra).

Aztertutako albisteak **15 gaitan** sailkatu ziren: "Politika nazionala eta nazioartekoa," "Eskualdeko eta tokiko politika," "Segurtasuna eta terrorismoa," "Ekonomia," "Kultura," "Gizartea," "Jaiak," "Ingurumena," "Hezkuntza," "Osasungintza eta osasuna," "Gertakariak," "Gastronomia," "Kirolak," "Meteorologia" eta "Beste gai batzuk".

Horietako lau, haien garrantziari eta emisio-denborari erreparatuta, lau azpikategoriatan banatu ziren; hala, nabarmentzekoak izan dira "Alderdi politikoak" kategoria "Eskualdeko eta tokiko politika" gaiaren barruan, "Lan-mundua" kategoria "Ekonomia" gaiaren barruan eta "Futbola" kategoria "Kirolak" gaiaren barruan.

Bestalde, zortzi eremu geografiko ezarri ziren, eskualdeko telebista-operadoreek erreferentziazko hiru asteetan emititu zituzten albisteak kokatzeko. Eremuak dira: "Iparraldea" (ipar-ekialdea eta Pirinioak), "Erdialdea" (Nafarroa erdiko ekialdea eta Lizarreria), "Iruña," "Iruñeako eskualdea," "Hegoaldea" (Goi Erribera eta Tuter), "Komunitatea (eskualde-eremukoak diren informazioak baina eremu geografiko bat baino gehiago edo Foru Komunitate osoa hartzen badute), "Beste autonomia-erkidego batzuk" eta "Nazionala eta nazioartekoa".

Denbora gehiago izan zuten gaiak izan ziren, ordena honetan, "**Eskualdeko eta tokiko politika**" eta "**Kirolak**". Bi gai horien denborak, batuta, aztertutako hiru telebistetako denboraren %45 inguru hartu zuten. Dena den, komeni da nabartzea bi gai horien ehunekoetan dagoen aldea aldatu egiten dela aztertutako telebista-katearen arabera; horrela, lehen gaiaren eta bigarrenaren arteko aldea 17,90 puntukoa izan zen Popular TV katean, 14,05 puntukoa Canal 6 katean, eta 3,52 puntukoa Canal 4 katean.

"Eskualdeko eta tokiko politika" kategoriaren barruan, "Alderdi politikoak" azpikategoriak —operadore autonomikoetan— eta "Gizarte-politikak" azpikategoriak —Popular TV katean— izan zituzten minutu gehien.

Bestalde, "Futbola" azpikategoriak hartu zuen "Kirolak" gaiko denboraren %50 eta %60 bitartean Horren atzetik, "Gizonezkoen eskubaloia" eta "Pilota" izan ziren denbora gehieneko bigarren eta hirugarren azpi-gaiak hiru telebistetan. Deigarria da "Emakumezkoen eskubaloia" izan zuen denbora urria, Itxako taldeak denboraldi bikaina egin baitu 2008/2009 denboraldian. Canal 4 Navarra katea izan zen talde horri denbora gehiena eskaini ziona (kate horretako kirol-tartearen %5).

Maila nazionalean egindako antzeko azterlanei erreparatuta, deigarria da eremu horretako telebistetan 'Gertakariak' gaia dela, kantitateari erreparatuta, denbora gehien hartzen duen bigarren gaia (%20 inguru, batez beste), eta Nafarroan, berriz, ehuneko hori laurdena baino txikiagoa dela, ez baita %5era iristen (salbuespena da Canal 6 katea, %8tik gertu baitago ehuneko hori, baina Canal 4 eta Popular TV kateetan ez da %3ra iristen).

Albistegi nazionaletan 'Kultura' gaiari buruzko albisteak %9 baziren, eskualde-maila ehuneko hori zertxobait handiagoa da, %11,38koa baita (nabarmentzekoa da, gurean, Canal 6 Navarra katea, gai horrek albistegiaren denboraren %14,12 hartu baitzuen).

2. KAPITULUA

BULTZADA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREARI

CoAN kontseiluak, bere egitekoen artean, lan handia egiten du Nafarroako ikus-entzunezko sektoreari bultzada bat emateko, eta, horretarako, hainbat jarduera egiten ditu: programazioko eta publizitateko edukien eskaintza eta eskariaren berri izateko azterlanak egiten ditu, herritarrek jakin beharko lituzketen informazioak zabaltzen ditu, eta sektorearen araupena hobetzeko proposamenak egiten.

2.1. NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN BAROMETROA 2008

CoAN kontseiluak, 2009. urtean 'Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008' aurkeztu zuen. Nafarroako Unibertsitate Publikoko "Aldaketa sozialak" izeneko ikertaldearen azterlan bat da, Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko komunikabideei buruzkoa, iritzi publikoaren berri izateko egina.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak nabarmendu zuen lehendik ere garrantzi handikoa zela horrelako azterlan bat egitea, jakiteko Nafarroako biztanleek zer-nolako harremana duten

ikus-entzunezko komunikabideekin, zer espero duten haiengandik, zer kritika egiten dizkieten eta nola aldatzen dituzten haiekiko ohiturak.

“Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008” egiteko, **telefono-bidezko 1.190 elkarrizketa egin dira, hainbat geruzatan banatuta** (16 urte edo gehiagoko gizon eta emakumeak, Nafarroan bizi direnak, familia-etxeetan). Elkarrizketatuak hautatzeko, aintzat hartu da zer eskualdetan bizi diren eta herriek zer tamaina duten. Azken bi ezaugarri horiek asko baldintzatzen dute ikus-entzunezko komunikabideei buruz pertsonak dituzten ohiturak eta iritziak.

Hauek dira ikertaldeak ikertu dituen bost gai nagusiak:

- Nafarroako etxeetan dauden ikus-entzunezko ekipamenduak.
- Telebistaren eta irratia kontsumoa, ohiturak eta horien erabileraren helburuak.
- Ikus-entzunezko edukiei buruzko iritzia.
- Irrati eta telebistako eskualde-operadoreei buruz egiten duten ebaluazioa.
- CoAN kontseiluaren ezagupena eta balorazioa.

Lan horren emaitzek interes soziologiko handia dute, baina, horrez gain, erabilgarritasun handia izanen dute CoAN kontseiluarentzat, haiek baliatuko baititu herritarrak babesteko eta haien interesak sustatzeko. Horrez gain, agerikoa da informazio baliotsua ematen duela CoAN kontseiluak landu behar duen gizarte-errealitatea ezagutzeko.

‘Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008’ Iruñeko Maisonnave hotelean aurkeztu zen 2009ko apirilaren 22an, eta aurkezpen-ekitaldi horretan izan ziren Nafarroako Gobernuako Eledu-naren komunikazio-bulegoko zuzendari orokorra, hainbat komunikabidetako zuzendariak, kazetariak eta Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorean lan egiten duten pertsonak.

Barometroko datuek adierazten dute nafarren herenak eskualde-prentsa baliatzen duela Nafarroan gertatzen denaz informatzeko eta beste heren batek telebista baliatzen duela.

Komunikabide horiek erabiltzeko arrazoi nagusiak adierazten ditu barometroak. Nafarren %55ak entretenitzeko ikusten du telebista eta %38k informatzeko. Horrez gain, %5ak aitortzen du konpainia gisa erabiltzen duela eta %2k adierazten du ikasteko erabiltzen duela. Bestalde, nafarrek adierazten dute irratia, batik bat, informatzeko (%36) eta entretenitzeko (%33) erabiltzen dutela. Halaber,

%15ak konpainia gisa erabiltzen du eta %13k adierazten du ez duela irratirik entzuten.

Eskualde-komunikabideen kalitateari buruz galdetuta, **%49k uste du eskualde-telebisten kalitate ona edo oso ona dela. Horixe bera adierazten du eskualde-irratiei buruz %59k.**

Nafarroako Ikus-entzunezkoen 2008 Barometroaren egitura

Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko informazio ugari ematen du 2008 Barometroak; besteak beste, nafarrek etxean dituzten ekipamendu teknologikoak eta ikus-entzunezkoak, haurrentzako programazioari buruz nafarrek duten iritzia edota telebistako edo irratiko kateak aukeratzeari izaten dituzten lehentasunak.

Azterlanaren hasieran, Barometroak aztertzen du **nola erabiltzen dituzten nafarrek komunikabideak Nafarroari buruzko informazioa eskuratzeko**, eta, horren ondoren, telebisten eta irratien goera azaltzeko bi atal monografiko ageri dira.

Telebista ikusteko arrazoiak aztertzen ditu telebistari buruzko atalak, hura ikusteko orduak eta gustuko kateak. Nafarroako telebistak aztertzeko atal berezi bat du barometroak, eta, bertan, jendearen gustuak adierazten dira, programazioaren kalitatea eta kantitatea baloratzen da, eskualde-telebisten programazioaren egokitasun-maila adierazten, eta eskualdeko eta tokian tokiko kateak hobetzeko har daitezkeen neurriak proposatzen dira. Horrez gain, zehaztasunez baloratzen dira emaitza hauek: ikusleek albistegiei buruz dituzten iritziak, entretenimendu-programazioari buruzko gustuak, nafarrek haur-programazioari buruz duten iritzia eta adingabeak babesteko eraginkorrak iruditzen zaizkien neurriak.

Irratiari buruzko atalean, aztertzen da zergatik entzuten duten nafarrek irratia eta gustukoak dituzten irati-kateak adierazten dira. Telebistari buruzko monografikoan egiten den moduan, Nafarroari buruzko programazioaren kantitatea eta kalitatea aztertzen da, eta aintzat hartzen da zein diren, entzuleen ustez, komunikabide horren jarduna hobetzeko moduak. Atal horretan bertan, telebisten eta irratien programazioetan euskarazko edukiak izateari buruz jaso diren iritziak adierazten dira.

Azterlana amaitzeko, datu guztiak konbinatzen dira, eta **sei kategoria hauetan sailkatzen dira nafarrak, komunikabideen eta haien edukien kontsumoari, pertzepzioei, balorazioei eta erlazioari erreparatuta**: “ikus-entzunezko komunikabideen jarraitzaile gogotsuak”, Nafarroako komunikabideen balorazio ona egiten dute (%24,6);

“telebistan murgilduak”, komunikabide hori erabiltzen dute informatzeko eta Nafarroari buruzko informazio gehiago eskatzen diete telebistei (%20,8); “Nafarroako komunikabideekiko uzkurak” (%19,5); “telebistaren zaleak”, asko ikusten dute telebista, apenas entzuten dute irratia, eta Nafarroako telebisten balorazio erdi-mailakoa egiten dute (%15,5); “ikus-entzunezko komunikabideekiko eszeptikoak”; Nafarroako komunikabideekin kritikoa direnak (%15,1); eta “deskonektatuak” (%2,5).

2.2. BABESA LURREKO TELEBISTA DIGITALA NAFARROAN BEHIN BETIKO EZARTZEKO PROZESUARI

Ekainaren 30ean eta abenduaren 10ean egin ziren, hurrenez hurren, Lurreko Telebista Digitalera Igarotzeko Plan Nazionalaren I. eta II. faseari zegozkien itzalaldi analogikoak. Bi fase horiek burututa, LTD bidezko seinalea soilik ikusten da Nafarroan, eta, hala, **bera izan da, Espainian, trantsizio teknologikoko prozesua osatu duen lehen autonomia-erkidegoa.**

Hori gertatu dadin, **zabalkunde- eta informazio-lan handia** egin behar izan da aurretik, herritarrei adierazteko zer abantaila dituen sistema analogikotik digitalera igarotzeak eta zer baldintza bete eta urrats eman behar ziren LTD sistemara egokitzeko. Behin betiko itzalaldia iristear zen garaian, ordaindutako LTD sistemaren aukera onartu zen 2009ko abuztuaren 13an eman zen 11/2009 Errege Dekretuaren bidez, eta horrek nahasmendua erantsi zion prozesuari, lurreko telebista digitalaren modalitate berri bat arautu baitzen.

Hori ikusita, **dibulgazioko bi agiri** hauek presatu ditu CoAN kontseiluak urte honetan: “LTDarekin ez galtzeko gida” eta “Ordainpeko LTDaren sei gakoak”. Kontseiluaren web-orrian argitaratu dira biak eta komunikabideetatik iragarri dira. Lehen agiria Nafarroako Erriberako alkateei entregatu zitzaion, Nafarroako Gobernuak antolatu zuen bilera informatibo batean.

“**LTDarekin ez galtzeko gida**” agirian, CoAN kontseiluak zortzi puntu giltzarri nabarmendu zituen, LTD sistemara igarotzeko prozesua errazteko nafarrei. Agiri horrek Nafarroako herritarrei jakinarazi zien LTD sistema izanen zela telebista doan ikusteko modu bakarra; horrez gain, LTDaren abantailak adierazi zizkien, eta telebista-kate berriak hartzeko aukeraren berri eman zien.

Agiriak jakinarazi zuen posible zela teknologia analogikotik digitalera igarotzea, eta gure foru-komunitatean egiten ziren bi itzalaldi analogikoen datak zehaztu zituen.

Azkenik, LTD sistema hartzeko urratsak azaldu zituen: sistemaren estaldura duen lurralde-eremu batean izatea etxea, antena egokitzea, eta telebistari dekodifikagailu bat jartzea (kanpoko edo barnekoa).

“**Ordainpeko LTDa ulertzeko sei gakoak**” izeneko agiriaren bidez, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak informazioa eman nahi izan zien herritarrei, eta, batik bat, Ministroen Kontseiluak abuztuan ordainpeko LTDa onartu ondoren, herritarrek azaldu zituzten zalantza ugariak argitu.

Dibulgazio-gida horretan, ordainpeko LTDa zer zen azaldu zuen CoAN kontseiluak eta LTD sistema osoa ordainpekoa izanen zen ala ez argitu. Horrez gain, sintonizadorea aldatu behar zen ala ez argitu zuen, eta hura ikusteko egin behar ziren urratsak azaldu zituen.

Azkenik, argitu zuen LTDa egungo dekodifikagailuen bidez ikusteko aukera izanen zen ala ez eta ordainpeko telebista-kateak ikusteko dekodifikagailu bat ala gehiago behar izanen ote ziren.

Bestalde, CoAN kontseiluko presidentek “Ordainpeko LTDari buruz” izeneko prentsa-zutabea idatzi zuen, eta CoAN kontseiluko zuzendari-kudeatzaileak lurreko telebista digitalari eta egokitzapen teknologikoko prozesuari buruzko 14 elkarrizketa egin zituen hainbat komunikabideentzat.

Nafarrei LTDaren berri emateko egin ziren dibulgazio-ekintzez gain, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, 2009an, **inkesta bat egin zien Nafarroako Foru Komunitateko udalerriguztiei**. Nafarroako udalerrietan LTD seinalea jasotzeko zeuden zailtasunen berri izan eta haiek konponbidean jartzea izan zen inkesta horren helburua. Guztira, 226 udalen erantzunak jaso zituen CoAN kontseiluak eta, informazio hori eskuratu ondoren, Berrikuntza, Enpresa eta Etxebizitza Departamentuari bidali zitzaion, neurri egokiak har zitezen.

CoAN kontseiluak, horrenbestez, bitartekari-lanak egin zituen Foru Komunitateko toki-entitateen eta Nafarroako Gobernuaren artean. Bitartekaritza-lan horren bidez, Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan (ODA) jaso ziren erreklamazioak bideratu nahi izan ziren, estaldura-arazok eta seinale digitala hartzeko arazoak adierazi baitzituzten erreklamazio horiek.

Horrez gain, 2009. urtean zehar, **Nafarroako LTDari buruzko Foroaren** hiru saiotan parte hartu zuen CoAN kontseiluak. Foro hori 2005ean sortu zen, LTDaren ezarpena bultzatzeko gure erkidegoan. Saio horietan, ekaineko eta abenduko “itzalaldi

analogikoak” behar bezala egiteko inplementatu behar ziren ekintzak aztertu ziren, bai eta beste gai hauek ere: seinale digitalaren estalduren eboluzioa, zer dibulgazio-ekintzak egingen ziren herritarrek behar bezala jakin zezaten nola egokitu LTDari, eta LTD zerbitzuak satelite bidez jaso dezakeen estaldura osagarria.

LTDari buruzko foroa Nafarroako Gobernuaren eta CoAN kontseiluaren ekimenez sortu zen, eta bertan parte hartzen dute, bi erakunde horiez gain, beste hauek: Canal 4 Navarra Digital; Editora Independiente de Medios de Navarra (Canal 6 Navarra); Nafarroako Televisión Popular; TVE telebistak Nafarroan duen lurralde-ordezkaritzak; OPNATEL; Abertis Telecom; Nafarroako Telekomunikazio alorreko Enpresaburu eta Zerbitzuen Elkarte (ANESITEL), Nafarroako Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte (ANIT), Nafarroako Telekomunikazioko eta Elekrika Industriako Lanbide Elkarte (AEN), Nafarroako Informazioko eta Komunikazioko Teknologiaren alorreko Enpresen Elkarte (ATANA); Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera; Finka Administratzaileen Nafarroako Elkargo Ofiziala; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (FNMC); Komunikabideen erabiltzaileen, teleikusleen eta irrati-entzuleen Plaza del Castillo elkarte; eta beste erakunde batzuk.

Lehen begiratuan, 2009. urtea amaituta eta Nafarroan itzalaldi analogikoa gauzatu dela, irudi dezake amaitu dela jada CoAN kontseiluak LTDaren ezarpenaren eta teknologia digitalerako igarotze-prozesuan zuen egitekoa. Baina ez da horrela.

Espanian ez da jada telebista-emisio analogikorik egiten, baina, pixkanaka, definizio handiko telebista ezarriko da, irrati-eremu elektrikoaren kudeaketa digitalak telebista-kate berriak sortuko ditu, eta ordainpeko LTDa finkatuko da. Hori guztia ikusita, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eutsi egingen dio duela bost urtez egiten ari den dibulgazio, sustapen eta koordinazioko lanari.

2.3. 4/2009 FORU-DEKRETUA, URTARRILAREN 19KOA, ADINGABEAK TELEBISTAREN AURREAN BABESTEKO MEKANISMOEN ERABILERA ARAUTZEN DUENA

Nafarroako Gobernuak, 2009ko urtarrilaren 19an, arau hau eman zuen: 4/2009 Foru Dekretua adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duena. **CoAN kontseiluak arau-testu bat prestatu eta onartzeko proposamen bat helarazi zion foru-gobernari**, adingabeak telebistako programazioaren, publikitatearen eta gainerako zerbitzuen aurrean babes-teko.

Hasierako proposamen hori 2006ko urrian kontsultarako igorri zitzaizen Gizarte Gaietako, Kiroletako eta Gazteriako Departamentuari eta Komunikazio Zuzendari Orokorrari, iradokizunak eta komentarioak egin zitzaizten. Gerora, 2008ko ekainean, arauak uki zitzaizkien elkarteei bidali zitzaizkien arau-proiektua, alegazioak egin zitzaizten. Erakundeetako Harremanen eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuak hartu zuen bere gain testua, eta erregelamendu-mailako arau bat egiteko prozedurari ekin zion.

Arau hori onartu ondoren, Nafarroa da adingabekoak telebistaren programaziotik, publizitatetik eta gainerako zerbitzuetatik osotasunean babesteko arau bat duen Espainiako autonomia-erkidego bakarra. Bestalde, autoerregulazioaren alorreko zenbait agirik lehendik jaso izan duten arren, lehen aldia da arau batek babes sendotuko ordutegiak jasotzen dituen

Foru-dekretuaren edukia

Adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duen testu horrek **zioen azalpena, sei kapitulutan banatutako hogeit artikulua, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu**. Zioen azalpenak adierazten du nazioarteko eta estatuko legeek adingabekoei babes juridiko egokia emateko arau-esparruak egin nahi izan dituztela eta babes hori gizarteko alor guztietara zabaltzen dela; hala, ikus-entzunezko komunikazioen alorra ere babes-esparru horretan sartu behar da.

Adingabeen eskubideen alorrean, arauak eskubide hauek aipatzen ditu: ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidea; beren garapenerako egokia den informazioa bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea. Azken eskubide horren harian, adingabekoek jasotzen duten informazioa egiazkoa eta anitza izan dadila eta konstituzioaren printzipioak bete ditzala zainduko dute guraso edo tutoreek eta botere publikoek.

Dekretuko kapitulu batek **programazioaz dihardu, eta programazioak bete beharrekoak izanen dituen printzipioak adierazten ditu, gazteak eta haurrak babesteko betebeharrarekin lotuta**. Horrez gain, Nafarroako administrazio publikoek adingabekoak babesteko eta berdintasunaren, elkartasunaren eta pertsonetikiko errespetuaren balioak sustatzeko dituen betebeharrak adierazten ditu. Aurrerago, xedatzen du telebista-saioetan ez dela zilegi izanen adingabekoen gorputzaren, gogoaren edo moralaren garapenari kalte larria egiteko moduko mezurik saritzea, ez eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa,

nazionalitatea, iritzia edo inolako inguruabar personal nahiz sozialengatik gorrotoa, mespretxua edo diskriminazioa sustatzeko modukorik ere. Halaber, **programen adinkako kalifikazioa eta horiei dagozkien seinaleak arautzen ditu dekretuak.**

Programazioaren ordutegi-tarteak banatzeko, hauek xedatzen ditu foru-dekretuak: **ordutegi babestua** izanen da 06:00etatik eta 22:00etara bitartekoa; **babes sendotuko ordutegi** izanen dira, lanegunetako 07:30-09:00, 13:30-14:30 eta 17:00-20:00 ordu-bitartekak, eta larunbat, igande eta jai-egunetako 8:00etatik 12:00etara bitartekoa; azkenik, **gaueko ordutegia** izanen da 22:00etatik hurrengo eguneko 06:00etara bitartekoa. Ordutegi horietarako, telebista-saioen, filmen eta promozioen mugapenak ezartzen ditu foru-dekretuak.

Horrez gain, adingabeak publizitateki babesteko erregimena ere arautzen du.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari dagokio horren guztiaren kontrola eta ikuskapena egitea, eta, beharrezkoa bada, dagozkion zehazpenak ezartzea. Xedapen gehigarri bakar bat du foru-dekretuak, eta, bertan, adierazten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoari, eta, bereziki, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari dagokiela autoerregulazioko arauak sustatu eta bultzatzea, adingabeen babeserako ezarritako dauden arauak garatu, osatu eta hobetzeko.

3. KAPITULUA

IKUS-ENTZUNEZKOEI BURUZKO LEGEDIA BETETZEKO MODUA NAFARROAN

18/2001 Foru Legeak, uztailaren 5ekoak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak, 20.3 artikulua arautzen duenez, CoAN kontseilua da "Nafarroan ikus-entzunezkoen sektoreko ekoizpenak, programazioak eta publizitatea arautzeko legeak, araudiak edo gainerako arauak betetzen direla zaintzeko organo eskuduna."

Eginkizun hori betetzeko, CoANek etengabeko jarraipena egiten die bere eskumenerako telebista- eta irrati-operadoreen programazio- eta publizitate- edukiei.

3.1. IKUS-ENTZUNEZKO OPERADOREAK ETA IKUS-ENTZUNEZKOEI BURUZKO LEGEDIA

CoAN kontseiluko zerbitzu teknikoek modu sistematikoa egiten dute Nafarroako telebista-operadoreek emititzen dituzten edukien jarraipena. Horretarako, urteko 365 egunetako 24 programa-

zio-orduak grabatzen dituzte, eta irrati-kateek programazioaren ausazko kontrolak egiten dituzte. Tratamendu ezberdin horren arrazoia da telebistaren araupena askoz handiagoa dela irratiarena baino, irrati-kateen kopurua handiagoa delako telebista-kateena baino, eta telebista-programazioak gizartean eragin handiagoa duelako, oro har, irrati-programazioak baino.

3.1.1. TELEBISTA-OPERADOREAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO LEGEDIA

CoAN kontseiluak txostenak egiten ditu hilero telebista-operadoreak egiten dituzten arau-urrapenak jasotzeko, eta telebistei bidaltzen dizkie, haiek aztertu eta hautemandako okerrak zuzen ditzaten. Aurten, urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretua indarrean jarri ondoren, bitan banatu dira **'Adingabeen babes'** indartzeko ezarri diren urrapenak: batetik, ordutegi babestuan 18 urtetik gorakoentzat diren programak emateari dagokion urrapenak daude, eta, bestetik, foru-dekretuak xedatutako babes sendotuko ordutegian 13 urtetik beherakoentzat gomendatuta ez dauden programak emateari dagozkionak. Horrenbestez, banaketa horri eta urrapenek urtean zehar izan duten bilakaerari erreparatuta, hau adierazi behar da:

- **'Ordutegi babestuan 18 urtetik gorakoentzat diren programak ematea'** saileko urrapenen kopuruak gora egin du, harik eta 69ra iritsi arte; izan ere, operadore batek call tv motako 67 lehaketa eman ditu. CoAN kontseiluak, zehapen-espediente bati ekin baino lehen, aurretiazko informazio-epea ireki zuen, eta operadoreak, epe horren barruan, kendu egin zuen programa.

- Bestetik, Nafarroako hiru eskualde-telebistek 193 urrapen egin zituzten **'babes sendotuko ordutegian 13 urtetik beherakoentzat gomendatuta ez dauden programak emateari dagokion atalean'**. Urrapen horiek 4/2009 Foru Dekretua indarrean jarri ondorengo lehen hiletan egin ziren, eta hiru operadoreek beren programazioak arautegi berrira egokitzeko prozesuan kokatu behar dira. Izan ere, urteko azken lau hiletan soilik hiru urrapen hauteman dira.

- **'Publizitateari eta telesalmentari dagokion emisio-denbora'** kategoriako urrapenen kopuruak behera egin du hiru operadoreetan.

Nafarroan ekoizitako lanen kopuruaren azterketa


2009. urtean zehar, CoAN kontseiluak jarraipena eman dio eskualde-operadoreei 18/2001 Legeak eskatzen dien emisio-baldintzetako baten bete-tze-maila kontrolatzeko jardunbideari, eta, zehazki,

Nafarroan ekoiztako lanen gutxieneko kopuru bat emititzeari dagokion baldintzari.

Nafarroako lanen bolumenari buruz 2009ko lehen eta laugarren hiruhilekoetan egin diren bi txostenetako datuak baliatu dira batez bestekoak egiteko; izan ere, txosten horiek aztertzen dute Nafarroan lurreko telebista digitaleko zerbitzu publikoaren emakidadun diren operadoreek –Nafarroa osorako Canal 4 eta Canal 6 kateek eta Iruñerako emititzen duen Popular TV Navarra kateak– Nafarroan ekoiztako lanen zer bolumen emititu duten.

Txosten horiek egiteko, Nafarroako ekoizpen moduan kontabilizatu ziren emisio nafar guztiak; hala nola, informazio-saioak, kirol-saioak eta lehiaketak. Ez ziren zenbaketa horren barruan sartu goizeko 02:00ak eta 06:00ak bitartean izan ziren emankizunak. Aurten, zenbaketa hori egiteko, soilik jatorrizko emankizunak eta bi errepikapen kontatu dira, eta, horrenbestez, ez dira kontabilizatu bigarren errepikapenaren ondotik egindako errepikapenak.

Jarraian azaltzen den irudian ikus daiteke Nafarroako Foru Komunitatean emititzen duten telebista-kateek 2009an emititu dituzten ekoizpen nafarren batez bestekoa:



Canal 4 Navarra telebista-operadorearen urteko batez bestekoa zertxobait handiagoa izan da 2009an aurreko bi urteetan baino, eta %12,49ra iritsi da; hala, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak arautzen duena bete du.

Canal 6 Navarra telebista-kateak ekoizpen nafarren emisio-ildo egonkorra izan zuen urtean, eta %28,62ko batez bestekoa iritsi zuen. Kate hori da Nafarroako hiru eskualde-telebisten batez besteko handiena duena. Datu hori aurreko urteetako baino apalagoa da, baina kontuan izan behar da aurten ez direla bigarregotik gorako emisio-errepikapenak kontabilizatu. Arrazoi horrek eta, ziur asko, beste arrazoi batzuek bultzatuta, Canal 6 kateak ez ditu garai batean bezain beste errepikatzen ekoizpen propioko programen emisioak.

Azkenik, Popular TV Navarra tokiko telebista-operadoreak %16,76ko batez bestekora iritsi da, eta horrek bere egoera ona adierazten du. Hala ere, datuak 2008koak baino apalagoak dira, datuen kontabilizazioaren aldaketan ondorioz.


Europar ekoiztako lan-kopuruen azterketa

Nafarroako Foru Komunitatean telebista-zerbitzua emateko baimena duten telebista-operadoreek Europar ekoiztako zenbat lan emititu dituzten ere aztertu du CoAN kontseiluak, eta kontrol horrekin zehaztu egin nahi da zer-nolako mailatan bete duten telebista-operadore horiek uztailaren 12ko 25/1994 Legeak, Mugarik gabeko Telebistari buruzko zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora dakarrenak, 5. artikuluan agintzen duena.

Zehazki, hau agintzen du 5. artikulua horrek: "Telebista-operadoreek beren urteko emisio-denboraren %51 gorde behar dute Europar ekoiztako ikus-entzunezko obrak emateko." Horrez gain, hau arautzen du Espainiako esparru-legearen 7. artikulua: "Kapitulu honetako aurreko artikuluek [5. eta 6. artikuluek] arautzen duten kasurako, ez dira emisio-denboratzat hartuko albiste-emankizunek, kirol-emankizunek, lehiaketek edo jokoek, publizitateak, telesalmentak eta teletestu-zerbitzuek hartutako denbora."

18/2001 Foru Legeak, uztailaren 5ekoak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak, ez du berariaz arautzen Europar ekoiztako obraren gutxieneko kuotarik bete behar dutenik Nafarroako Foru Komunitatean telebista-zerbitzua emateko baimenduta dauden operadoreek. Horren harian, adierazi behar da 18/2001 Foru Legeak Nafarroan ekoiztako obraren alde egiten duen erreserbari buruzko artikulua dela, arlo horretan, Espainiako 25/1994 Legeak egiten duen erreserbaren korrespondentzia. Dena den, hau arautzen du Nafarroako lege horren laugarren xedapen gehigarriak: "Foru lege honen II. kapituluaren jasotako betebeharrak uztailaren 12ko 25/1994 Legearen II. kapituluaren ezarritakoen osagarriak dira, foru lege honen menpeko telebista operadoreek azken hauek ere bete beharko baitituzte."

Bildutako datuek adierazten dute hiru operadoreek gainditzen dutela indarreko araudiak arautzen duen %51eko emisio-muga hori:



3.1.2. IRRATI-OPERADOREAK ETA IKUS-ENTZU-NEZKO LEGEDIA

CoAN kontseiluak, agindu zaizkion eginkizunak betetzeko, jarraitu egin du, 2009an zehar, Nafarroan emititzeko baimena duten 19 operadoreen programazioko eta publizitateko edukien jarraipena egiten.

Lan horren harian, txostenak egin dira hilero eta **sei hileko bi azterlanetan** taldekatu dira, CoAN kontseiluko zerbitzu teknikoek Nafarroan egiten diren irrati-emisioen jarraipen aldizkakoa eta iraunkorra egiteko finkatu dituen irizpideei jarraituz. Irizpide horiek “Nafarroako irrati-emisioen edukiak kontrolatzeko protokoloan” daude zehaztuak.

Irratsaioen jarraipena egin ondoren, ez da hauteman 18/2001 Foru Legeak, uztailaren 5ekoak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak, 3. artikuluan arautzen dituen programazio-edukien urrapenik hauteman.

3.2. COAN KONTSEILUA ETA NAFARROAKO IRRATI- ETA TELEBISTA-OPERADOREEK EMITTU DITUZTEN EDUKIEN JARRAIPENA

18/2001 Foru Legeak, uztailaren 5ekoak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak, 20. artikuluan arautzen du CoAN kontseilua dela Nafarroan ikus-entzunezkoen legedia betetzen dela zaintzearen eskumena duen organoa. Eginkizun hori betetzeko, Lege horren 26.3. artikulua arautzen dituen ahalmenak ditu; hain justu, proposamen- edo gomendio-, errekerimendu-, txosten-, ikuskaritza- eta kontrol-ahalmenak eta zehapen-ahalmenak.

3.2.1. ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK

Ahalmen horien harian, CoAN kontseiluak, abenduaren 10eko 80/2009 Erabakiaren bidez, **zehapen-espeditente bat** ireki zion, 2009. urtean, operadore bati, “ez gomendatua 18 urtetik beherakoentzat” kalifikazioa duen film bat emititzeagatik babes-ordutegian. Espeditente hori abiarazi zen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 16. artikuluen balizko urratzeagatik eta urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretuak, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabilera erregulatzen duenak, 14. artikuluan arautzen duenaren balizko urratzeagatik.

Zehapen-espeditente hori, karguen orria egin eta operadorearen alegazio-idatzia jaso ondoren, urtarrilaren 14ko 2/2010 Erabakiaren bidez ebatzi zen. Erabaki horrek artxibatu egin zuen zehapen-prozedura, ez baitzen nahikoa elementu hauteman

prozedurapean jarritako gertakariak 18/2001 Foru Legeak tipifikatutako urrapen bat zirela erabakitze-ko.

Bestalde, 18/2001 Legeko 18.2 artikulua arautzen du zehapen-espeditente bat abiarazi aurretik aukera izanen dela aurretiazko informazio-epe bat zabaltzea gertakariak argitzeko, kasu bakoitzaren inguruabarren nondik norakoak ezagutzeko eta prozedurari ekitea komeni den ala ez erabakitze-ko. Hori horrela izanda, 2009. urtean, Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseiluak **aurretiazko informazio-ko lau epe** irekitzea, eta, gerora, ixtea agindu du:

- Otsailaren 24ko 15/2009 Erabakiaren bidez, aurretiazko informazio-epea ireki zitzaion operadore bati ez zituelako *call tv* programak “ez gomendatua hamahiru urtetik beherakoentzat” gisa kalifikatu; izan ere, hori egiteko eskatu zitzaion azaroaren 27ko 103/2008 erabakiaren bidez.

Eskakizun hori bere egin zuen ala ez jakiteko eta operadoreak *call tv* motako programen emisio-arekiko hartu zituen konpromisoak bete zituen ala ez egiaztatzeko, CoAN kontseiluko zerbitzu teknikoek txosten bat egin zuten operadore horrek otsailaren 9tik 15erako astean eman zituen *call tv* motako programak aztertzeko. Espeditentearen tramitazioa egin ondoren eta jardunbideen emaitzari erreparatuta, artxibatu egin zen aurretiazko informazio-epea.

- Maiatzaren 28an, 35/2009 Erabakiaren bidez, aurretiazko informazio-epe bat irekitzea agindu zen, ordutegi babestuan “ez gomendatua 18 urtetik beherakoentzat” kalifikazioa duten *call tv* motako programak emititzeagatik.

Urrapen hori maiatzean operadoreen emisioei egindako jarraipenean hauteman zen. Programazioa aztertu eta haren jarraipena egin ondoren, ikusi zen operadore horrek, maiatzaren 24ra bitartean, 29 lehiaketa eman zituela ordutegi babestuan, “ez gomendatua 18 urtetik beherakoentzat” kalifikazioa zutenak Urrapen horri zegokion espeditentea tramitatu ondoren eta, operadoreak lehiaketa hori bere programaziotik kentzeko konpromisoa hartu zuela ikusita, artxibatu egin zen aurretiazko informazio-epea.

- 36/2009 erabakiaren bidez, aurretiazko beste informazio-epe bat irekitzea agindu zen, “ez gomendatua 13 urtetik beherakoentzat” kalifikazioa zuen dokumental bat eman zuelako operadore batek 4/2009 Foru Dekretuak ezarritako babes sendotuko ordutegian.

Operadoreak egin zituen alegazioak aztertu ondoren eta dokumental horrek babes sendotuko

ordutegian eman zuen denbora laburra (sei minutu soilik) aintzat hartu ondoren, artxibatu egin zen informazio-epe hori ekainaren 18ko 39/2009 Erabakiaren bidez.

- Azkenik, urriaren 8ko 60/2009 Erabakiaren bidez, aurretiazko informazio-epe bat ireki zen Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa jaso zen kexa baten ondorioz (ODA 71/2009). Kexaren arrazoiak zen sexu-edukiko zenbait eszena azaldu zirela “adin guztietarako” kalifikazioa zuen telesail batean.

Azaroaren 5eko 75/2009 Erabakiak artxibatu egin zuen aurretiazko informazio-epe hori, erabaki baitzen eduki horiek ez zirela behar bezain esplizituak adingabekoen gorputzaren, gogoaren eta moralaren garapena kaltetzeko. Horrez gainera, irudiak babes sendotuko ordutegitik kanpo eman ziren.

3.2.2. ERREKERIMENDUAK

Atal honen hasieran adierazi den moduan, CoAN kontseiluak, ikus-entzunezko legedia betetzen den kontrolatzeko eginkizunen baitan, proposamenak edo gomendioak egin ditzake, eta errekerimenduak egiteko ahalmena du. Ahalmen horiek baliatuz, **hamar errekerimendu** egin dizkie 2009an, Nafarroan emititzeko baimena duten operadore emakidadunei:

- Otsailaren 12ko 7/2009 Erabakiaren bidez, errekerimendu bat egin zitzaion operadore bati, adingabekoak programazioaren aurrean babesteko indarrean dagoen legedia zorrotz bete zezan. Ohartarazi zitzaion, urrapenak errepikatuko balira, CoAN kontseiluak zehapen-espeditente bat irekitzeko arrazoiak izanen litzukeela.

- Otsailaren 24ko 15/2009 Erabakia eman ondoren, *call tv* motako programak aztertze txosten bat egin zen, eta, ondorioz, CoAN kontseiluak bi errekerimendu egin zizkion operadore bati, programa horiek behar bezala errespeta zezaten urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretuak arautzen duen babes sendotuko ordutegia. Horrez gain, errekerimendu horien bidez eskatu zitzaion behar bezala bete zezala tarifa gehigarriko zerbitzuak emateko bete beharrekoa den indarreko legedia.

- Apirilaren 7an, 21/2009 eta 22/2009 erabakien bidez, errekerimendu bana egin zitzaion bi operadorei, indarreko legedia bete zezaten, eta, zehazki, telesalmentako programentzat ezarrita dagoen gehienezko hiru orduko emisio-denbora gaindi ez zezaten.

- Bi operadorek ‘ez gomendatuak 13 urtetik beharagoentzat’ kalifikazioa zuten saioak eman

zituzten babes sendotuko ordutegian, eta, maiatzaren 14an, 32/2009 eta 33/2009 erabakien bidez, errekerimendu bana egin zitzaion beren programazioa behar bezala egokitu zezaten urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretuak, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabilera erregulatzen duenak, 15. artikuluan arautzen duen babes sendotuko ordutegira.

- Azaroaren 5eko 75/2009 Erabakiaren bidez, errekerimendu bat egin zitzaion operadore bati, behar bezala erabil zitzaion programak ikusleentzat duten egokitasuna adinaren arabera neurtzeko mekanismoak. Errekerimendu horren bidez, adierazi zitzaion zehapen-espeditentea abiaraziko zela jokabide hori beste aldi batzuetan errepikatuko balu.

- Programazioaren emisio normaleko ordu bakoitzeko 12 publizitate-minuturen muga eta telesalmentako saioentzat araututa dagoen 3 emisio-orduko muga igaro zutela ikusita, CoAN kontseiluko osoko bilkurak, abenduaren 17an hartu zituen 81/2009 eta 82/2009 erabakien bidez egindako errekerimenduen bidez, 18/2001 Foru Legeko 11. eta 12. artikulua betetzeko eskatu zien bi operadorei, hau da, publizitatea eta telesalmentako saioak emititzeko denbora-mugak errespeta zitzatela. Ohartarazi zitzaion, eskatutakoa beteko ez balute, zehapen-espeditente bat irekiko zitzaiela.

3.3. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN KONTROLATZEAKO AKORDIOEN ETA PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN JARRAIPENA

CoAN kontseiluak, Nafarroan ikus-entzunezko komunikabideei buruzko legedia betetzen dela bermatzeko erakundea den aldetik, **Administrazioaren eta ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanen jarraipena** egin behar du.

Horiek horrela, hau arautzen du uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 26.1.e. artikulua: “Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluak Nafarroako administrazio publikoek ikus-entzunezko komunikabideekin izenpeturiko akordioen berri izanen du, komunikabide horiek, zuzenean edo zeharka, dirulaguntza publikoak jaso edo titularitate edo jabetza publikoko ondasun edo zerbitzuak erabiltzen badituzte.” Halaber, CoAN kontseiluaren eskumenen artean aipatzen ditu “Nafarroako Administrazio Publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak hitzarmenak —egungoak eta etorkizunekoak— kontrolatu eta haren jarraipena egitea.” (26.1.f. artikulua) eta “Komunikabideetako publizitate instituzionalaren kopuruak kontrolatu eta haien jarraipena egitea” (26.1.g. artikulua).

3.3.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO SEKTORE PUBLIKOKO ORGANOEK HITZARTUTAKO PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN BOLUMENAREN KONTROLA

Nafarroako Foru Komunitateko sektore publiko-ko organo hauek 2009. urtean hitzartutako publizitate instituzionalaren bolumenaren kontrola egitea erabaki zuen CoAN kontseiluak: Nafarroako Gobernua, Larrialdietarako Nafarroako Agentzia (ANE), Viviendas de Navarra, S. A. (VINSA), Baluarte fundazioa, Iruñeko Udala, Tuterako Udala, Lizarrako Udala, Tafallako Udala, Zangotzako Udala, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Parlamentua.

Urteko txosten honen edizioaren itxieran, honako organo hauen informazioa iritsi da CoAN kontseiluaren eskura: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Larrialdietarako Nafarroako Agentzia (ANE), Baluarte Fundazioa, Viviendas de Navarra, S. A. (VINSA), Iruñeko Udala, Tafallako Udala eta Zangotzako Udala.

Nafarroako Gobernuak Erakundeekiko Harremanen eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuko Zuzendaritza Orokorrek txosten bat bidali zuen **foru-gobernuak 2009. urtean publizitate instituzionalaren alorrean egindako gestioa** azaltzeko, eta hauek dira agiri horri dagozkion konklusioak:

- **Nafarroako Gobernuak bete egin zuen 1/2003 Foru Aginduak**, azaroaren 11koak, Foru Komunitateko Administrazioaren publizitate instituzionalaren kontratazioarako arautzen dituen irizpideak.

- **Publizitate-inbertsioaren banaketa egitean, publizitate hori egiten duten komunikabideen zabalkundea, audientzia eta ezarpenari erreparatu zitzaion**, eta efizientziaren eta efikaziaren irizpideak bete ziren.

- **Ikus-entzunezkoen sektoreari erreparatuta, nabarmentzekoa da, zenbaki absolutuetan, telebistan egindako inbertsioa**. 2008. urtearekiko %5,9 jaitsi bazen ere, publizitatean egindako inbertsio osoaren %30,6 izan zen. Publizitate horren banaketari erreparatuta, adierazi behar da esparru nazionalako telebista orotarikoetan jarri zela, nagusiki, publizitate hori, eta haien atzetik izan zirela telebista autonomikoak eta Nafarroako eskualde-telebistak.

- **Bestalde, irratian egindako inbertsioan abarmen igo zen 2009an**, 2008an baino %79,7

gehiago, batik bat, Kultura eta Turismo departamentuak lehen aldiz baliatu zuelako komunikabide hori publizitatea egiteko eta telebistan egindako inbertsioak pixkanaka behera egiten ari direlako.

3.3.2. IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENEI 2009AN EMANDAKO LAGUNTZAK

Erakundeekiko Harremanen kontseilari eta Gobernuak eledunak apirilaren 14an emandako 104/2009 Foru Aginduaren bidez, ikus-entzunezkoen ekoizpenei 2009an laguntzak emateko deialdia onartu zen, eta deialdi hori kontseilari horrek berak ekainaren 15ean eman zuen 308/2009 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen. Gerora, abuztuaren 7ko 325/2009 Foru Aginduak, operadore batek hiru proiekturen diru-laguntzei egin zien ukoa jaso zuen, eta beste diru-laguntza bat eman zion, zenbaterako berean, beste proiektu bati.

Ildo horretatik, **CoAN kontseiluak balioetsi egiten ditu ekoizpenerako laguntzak ematea** — Kontseilua bera izan zen bultzatzaileetako bat—; hala ere, sistema hobetu daitekeela uste du, baldin eta honako **neurri** hauek jasotzen badira:

- Proiektu-mota berri bat sortzea, soilik haurerentzat eta gazteentzat.

- Diru-laguntza jaso dezakeen proiektu-mota bakoitzari zenbaterako finko bat esleitzea, edo, horren ezean, deialdiak finkatzen duen zenbaterako osoaren ehuneko bat esleitzea proiektu-mota bakoitzarentzat.

- Ebaluazio-irizpide berezituak ezartzea proiektu-mota bakoitzarentzat. Ildo horretatik, hau proposatu zen:


- Lehenik, “ikus-entzunezko ekoizpeneko emisio-proiektuen” kasuan, 2008. urtetik proposatu da ez laguntzarik ematea magazine izaerako programei. Adierazi behar da, ildo horretatik, CoAN kontseiluak berak egin zuen eskaerari jarraituz, ez zitzaizela laguntzarik eman albistegi-saioei 2007ko deialdian.

Horrela jokatuta, operadoreek programazio-formula berriak bilatu beharko lituzkete, oraingoak baino berriagoak eta berritzaileagoak. Aintzat hartu behar da, gainera, goian adierazi diren programa-mota horiek aspaldiko ezarpena eta leku handia dutela eskualde-telebisten programazioetan. Hala ere, mantendu egin daitezke berariaz debateak eta elkarrizketak lantzen dituzten programak.

4. KAPITULUA

NAFARROAKO HERRITARREN ETA IKUS-ENTZUNEZKO BITARTEKOEN ARTEKO HARREMANA

CoAN kontseilua ikus-entzunezko sektorerako agintaritza da Nafarroan, eta izaera hori duen aldetik, hari dagokio zaintzea herritarren eta foru-komunitateko ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremana zuzena, egokia eta errespetuzkoa dela. CoAN kontseiluaren eginkizun horrek hiru ardatza ditu: Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan aurkeztu diren erreklamazioak, adingabekoen babesa eta ikus-entzunezkoen arloko alfabetizazioa.



Nabarmendu beharrekoa da 2009an **3.706 erreklamazio jaso zituela CoAN kontseiluak, kate-moduan gehienak**, Nafarroan ETB telebista-katea LTDaren bidez hartzeko aferari buruz. Erreklamazio horien kontabilizazioa egiteko, sarrerabaterako hori kexa bakar baten moduan adierazi da, Nafarroatik eta posta elektronikoaren bidez egindakoa. Hala ere, erreklamazio guztiak banan-banan erantzun ziren eta prozesuak unean-unean zuen egoerari egokitu ziren.

Erreklamazio-egileen profila

2009. urtean, kasu honetan ere aurreko bi urteetan ez bezala, **gizonezko gehiagok erabili zuten zerbitzua emakumezkoek baino**. Horrez gain, gero eta gehiago dira CoAN kontseiluari erreklamazioak egitera zuzentzen zaizkion kolektiboak: 2009an izandako sarreraren artean, udalak eta organizazioak daude, lege-alderdiei buruzko aholkularitza eskatu edo kexaren bat helarazi dutenak.

Erreklamazioen jatorriari dagokionez, nabarmen handitu dira **Nafarroako Foru Komunitateko**

4.1. IKUS-ENTZULEEN DEFENTSARAKO BULEGOA (ODA)

4.1.1. ODA BULEGOKO DATUAK 2009AN

2009. urtean, **94 erreklamazio erregistratu ziren**, eta, horietatik, erdia baino gehiago kontsultak izan ziren (49), beste 41 kexa izan ziren eta soilik 4 iradokizun egin ziren. Datu horiek eten egin dute azken bi urteetako joera; izan ere, 2007. urte-tik Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan (ODA) aurkeztutako kexak gehiago ziren egindako kontsultak baino. Aldaketa horretarako faktoreetako bat izan da, zalantzarik gabe eta aurrerago agerian geratuko den moduan, 2009an bi fasetan egin ziren itzalaldi analogikoak.

pertsonen egindakoak (%87 izan dira 2009an eta %71 izan ziren 2008an). Horren arrazoia izan daiteke, lehen adierazi den moduan, ekainean eta abenduan gure foru-komunitatean egin diren "itzalaldi analogikoak".

luz gertatzen zen moduan, Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoarekin harremanetan jartzeko bide erabiliena **Internet** izan da, 900 841 014 doako telefono-zenbakiaren edo Kontseiluaren telefono orokorraren aurretik.

Kexak

2009. urtean, 41 kexa erregistratu ziren, ODA bulegoari egindako erreklamazio guztien %43,6. Aurten, aldaketa hauek izan dira aurreko urteetako: kexen %70 izaera teknikoa zuten (iaz %67 programazioari buruzkoak ziren). Telebista analogikotik LTD sistemako telebistara igarotzeko prozesuak azaltzen du aldaketa hori. Kexen %25 ikus-entzunezko komunikabideen programazioari buruzkoak izan ziren. Nabarmenezkoa da, halaber, 2009an ez zela publizitateari buruzko kexarik aurkeztu.

KEXAREN GAIA		
	<i>Guztira</i>	<i>Ehunekoa</i>
Programazioa	10	%24,4
Gai teknikoak	29	%70,7
Beste gai batzuk	2	%4,9
Guztira	41	%100

Kexa gehien jasotzen dituen euskarria **telebis-ta** da oraindik ere, kexa guztien %93 komunikabide horri egin baitzaizkio. Haren atzetik, oso urrun, irratia dago.

Aurkeztutako kexen arrazoiei erreparatuta, **LTD**arekin lortutako gaiak izan dira, haurren babe-

sari dagozkion gaien lekua hartuta, ODA bulegoarekin harremanetan jartzeko arrazoi nagusiak. Horren atzetik, telebisten programazio-edukiak izan ziren kexarako bigarren arrazoa.

KEXAREN ARRAZOA		
	<i>Guztira</i>	<i>%</i>
LTDaren estaldura	24	%58,5
Telebisten programazio-edukiak	9	%22
Irratiak	3	%7,3
Kable bidezko tokiko telebistak	2	%4,9
Komunikabideetarako sarbide-eskubidea	2	%4,9
Beste gai batzuk	1	%2,4
Guztira	41	%100

CoAN kontseiluko zerbitzu juridikoez aztertzen dituzte ODA bulegoan jasotzen diren kexa guztiak. Jasotzen diren kexekin beti prozesu bera jarraitzen da; hala ere, prozedura aldatu egin daiteke baldin eta kexaren gaia CoAN kontseiluaren lurralde-eskumenekoa bada ala ez; izan ere, kontseiluak

aztertzen eta erabakitzen ditu foru-komunitatearen esparruko kexak, baina, esparru nazionalekoak badira, baloratu eta, hala badagokio, beste organismo batzuetara bideratzen ditu, urratuak izan diren eskubideak berma daitezten.

ODA BULEGOAREN JARDUNA AURKEZTUTAKO KEXEKIKO		
	<i>Guztira</i>	<i>Ehunekoa</i>
Onetsiak	30	%73,3
Beste nonbaitera bideratuak	5	%12,2
Ezetsiak	6	%14,6
Guztira	41	%100
* Kexak aztertu ondoren, hau egin daiteke:		
<ul style="list-style-type: none"> - <u>Kexa onetsi</u>: kexa onetsiko da baldin eta ikusten bada indarreko araubidea urratu dela eta CoAN kontseiluaren geografia- eta eskumen-eremuan dagoen operadoreen baten gainekoa bada. Horrez gain, beste jardueramota batzuk egin daitezke; hala nola, berriazko azterlanak edo txostenak egitea, gomendioak prestatzea eta iradokizunak egitea. - <u>Kexa ezetsi</u>: hala egingen da baldin eta aurreiazko azterketak adierazten badu ez dela araurik urratu. Interesatuei ematen zaie erantzuna eta ezeste horren arrazoiak azaltzen. - <u>Kexa beste nonbaitera bideratu</u>: hori egiten da CoAN kontseiluaren geografia- eta eskumen-esparrutik kanpoko operadoreei buruzko kexekin. Kexa horiek erabakitze eskumena duten erakundeetara bideratzen dira kexa horiek. Sektoreko arauak edo indarreko kode etikoak urratu izanaren aztarnak ikusten badira, aurreiazko azterketak egiten dira, neurri egokiak har ditzaten eskatzeko horietan eskumena duten organoei. 		

Nabarmentzekoa da erakunde eskumendunei bideratutako kexen artean, bat Industria, Turismo eta Merkataritzako Ikus-entzunezko Komunikabi-deetarako zuzendariordetzara bideratu zela, zehapen-espeditate bat irekitzeko proposatu diezaion organo eskudunari. Zehazki, 78/2009 ODA kodeko kexa izan zen, haurren babeserako ordu-tegian adingabekoentzat kaltegarriak diren edukiak emititzeagatik Telecinco kateko "Sálvame" programan.

Bestalde, 26/2009 ODA kodedun kexa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko fiskaltzara bideratu zen, TVE telebistako La Primera kateak "112 Héros de la calle" programako erreportaje batean adingabekoen talde baten irudiak eman ondoren, ulertu baitzen irudi horiek emateak adingabeko horien eskubideak urra zitzakeela.

Kontsultak

Kontsulten kopuru osoa, aurrez adierazi den moduan, nabarmen handitu da, harik eta **ODA bulegoan sartutako %52ra iritsi arte**. Ehuneko horia urreko urtekoa baino nabarmen handiagoa da, urte horretan erreklamazio guztien %33 izan baitziren.

Kontsulten arrazoari erreparatuta, nabarmendu behar da LTDa izan dela haien %67ren arrazoia. Horren atzetik, ikus-entzunezko sektoreko legediari buruzko kontsultak izan dira (%12). LTDari buruz egindako kontsulten artean, haren estaldurari buruzko kontsultak izan dira ugarienak. Nabarmentzekoak dira, halaber, kable bidezko telebistaren erabiltzaileek egindako kontsultak haien hornitzaileengatik jasotzen zuten informazio urriarengatik. Izan ere, ez zekiten itzalaldi analogikoak zer eragin izanen zuen haiengan eta zer telebista-kate ikusteko aukera izanen duten itzalaldiaren ondoren.

KONTSULTAREN ARRAZOIA		
	<i>Guztira</i>	<i>Ehunekoa</i>
LTD	33	%67,4
LTDaren estaldura	11	%22,5
LTDko edukiak	8	%16,3
Itzalaldi analogikoak	7	%14,3
Kablea eta LTD	7	%14,3
Lege-alderdiak	6	%12,2
CoAN kontseiluari buruzko azterlanak	4	%8,2
Kable bidezko telebista	3	%6,1
Beste gai batzuk	3	%6,1
Guztira	49	%100

Iradokizunak

Aurreko ekitaldian nabarmen urritu zen iradokizunen kopurua, 2008. urtean 17 izan arren, soilik 4 izan baitira 2009an.

IRADOKIZUNEN GAIK		
	<i>Guztira</i>	<i>Ehunekoa</i>
Programazio-edukiak	3	%75
Publizitatea	1	%25
Guztira	4	%100

4.1.2. ODA BULEGOAREN BILAKAERA 2004-2009 EPEAN

Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa (ODA) lanean ari da 2004. urtetik aurrera. **Urte hauetan**

guztietan 408 sarrera jaso ditu guztira. Guztizko zenbakiei erreparatuta, 202 kexa, 154 kontsulta eta 52 iradokizun aurkeztu dira.

ODA BULEGOAN 2004-2009 EPEAN IZAN DIREN SARREREN ERREGISTROA				
URTEA	KEXAK	KONTSULTAK	IRADOKIZUNAK	GUZTIRA
2004	21	0	6	27
2005	22	8	0	30
2006	26	32	7	65
2007	46	32	18	96
2008	46	33	17	96
2009	41	49	4	94
GUZTIRA	202	154	52	408

4.1.3. ODA BULEGOAREN SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-KANPAINA

ODA bulegoaren sustapen-kanpaina abenduaren 14tik 21era bitarteko astean egin zen, eta **irratia** izan zen haren euskarria. Publizitate-iragarkiak sartu ziren SER irrati-katearen Iruñeko, Tafallako eta Tuterako eskualde-esparruetan; Onda Cero irrati-katearen Iruñeko, Altsasuko, Elizondoko, Lizarrako eta Tuterako eskualde-esparruetan; COPE irrati-kateko Iruñeko eta Azkoiengo eskualde-esparruetan; eta Punto Radio irrati-kateko Lizarrerriko esparruan.

4.2. COAN KONTSEILUA ETA ADINGABEKOEN BABESA

Adingabekoen babesa da CoAN kontseiluaren jardunaren gidari den eginkizunetako bat. Hala ere, 2009an, berriazko ekintzak egin ziren gai-esparru horretan.

4.2.1. PROGRAMAZIO-EDUKIEN AZTERKETA

2009. urtean, CoAN kontseiluko eduki-batzordeak **sei telebista-saiori buruzko sei txosten** egin ditu. Edukiak Nafarroako eskualde-operadoreek zein nazionalak eman dituzte, eta txostenen helburua izan da aztertzea ea emititutako eduki horiek egokiak ziren beren emisio-orduari erreparatuta; hau da, babes sendotuko orduak errespetatzen zituzten ala ez aztertzea.

Zehazki, saio hauek aztertu dira: Canal 6 Navarra kateko “Ambiciones” telesaila, Localia-Canal 4 Navarra kateko “Lola... érase una vez” telesaila, Canal 6 Navarra kateko “Colegio Mayor” telesaila, Localia-Canal 4 Navarra kateko “Sole-

dad” telesaila, Localia Canal 4 Navarra kateko “Los niños de Dios” dokumentala eta Telecinco kateko “Sálvame” programa.

Egindako txostenen ondorioz, **bi errekerimendu** egin zaizkie operadoreei, eduki horien programazio-ordutegia alda zezaten. Zehazki, kasu batean, **aurretiazko informazioko epe bat** ireki zen, zehapen-espeditante baten irekiarena urrekoa, eta, beste kasuan, **Turismo eta Merkataritzako Ikus-entzunezko Komunikabideetarako zuzendariordezara** eta ‘Autoerregulazio Kodearen’ jarraipenerako Batzorde Mistora bideratu zen gaia, CoAN kontseiluaren eskumenpeko lurralde-eremutik kanpoko gaia baitzen.

4.2.2. ADINGABEKOEN BABESAREKIN LOTUTAKO HITZALDIK ETA GAIAREKIN LOTUTAKO EKITALDI ETA KOMUNIKAZIOETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA

2009an, gaian adituak diren pertsonen hainbat foro eta topaketetan parte hartu dute CoAN kontseiluko kontseilari eta langileek, eta, instantzia horietan, adingabekoei ikus-entzunezko komunikabideen aurrean eman beharreko babesarekin lotutako gaiak aztertu eta eztabaidatu dituzte.

Nabarmenezkoak dira **CoAN kontseiluko presidentea den Ramón Bultó jaunak** 2009an eman zituen bi hitzaldi. Lehena martxoaren 28an eman zuen, “Excellence” programaren hirugarren edizioan, eta hau izan zen bere izenburua: “Nola hobetu telebistaren edukiak? Guztiontzat izan den telebista bat sortzeko irtenbideak”.

Bigarrena Europar Batasunak adingabekoak teknologia berrien aurrean duten egoera aztertze-

ko ikertzaileen Mintegian eman zuen. Mintegia 2009ko azaroaren 2tik 3ra egin zen, eta Madrilgo Complutense unibertsitateari atxikitako Villanueva unibertsitate-zentroak antolatu zuen. Zehazki, Bultó jaunak 5. Panelean parte hartu zuen, "Adingabekoen babes eta estatuan eginen den Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eskumenak. Kataluniako eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluen esperientzia" izeneko. Haurren Eskubideen Hitzarmen Unibertsalaren XX. urteurrenaren hari- an antolatu zen mintegi hori, eta haren helburua izan zen haurrak eduki kaltegarrietatik edo desgokietatik babesteko politika arautzaileak ezagutzea eta horiei buruzko hausnarketa egitea.

Halaber, irailaren 24an, Alfredo Caballerok idatzitako "Internet para padres" liburuaren aurkezpen-ean izan zen CoAN kontseiluko zuzendari-kudeatzaile den Borja Mora-Figueroa jauna, eta, bertan, CoAN kontseiluak 2005etik egiten dituen ikus-entzunezkoen alorreko alfabetatze-kanpainak esplikatzen zituen.

Bestalde, azaroaren 19an, Juan Andrés Platero kontseilariak "Tecnologia berriak egoki erabili beharraren kontzientziazioa" izeneko hitzaldia eman zuen Dicastillon. Hitzaldi hori AFAMMER-Navarra elkarteak antolatutako "Familiari dagozkion balioei buruzko sentsibilizazioa" jardunaldien baitan eman zuen.

4.3. 'FAMILIA ETA IKUS-ENTZUNEZKO PANTAILAK 2009' KANPAINA

Adingabekoen gero eta gehiago erabiltzen dituzte telebista eta bestelako ikus-entzunezko pantailak (ordenagailua, internet, kontsolak eta eskuko telefonoak), bai ikasteko, bai entretenitzeko. Hori horrela izanda ere, guraso askok ez dakite oraindik zer aukera eta arrisku dakartzaten bitarteko horiek, eta, ondorioz, ez daude horien kontsumo arduratsu bat bultzatzeko edo erabilera-ohitura txarrek ekar ditzaketen kalteak eragozteko moduan. Hori ikusita, CoAN kontseiluak lehentasunezko helburutzat hartu du **Nafarroako gurasoei laguntza ematea, bai baliabide horiek ezagutzeko, bai adingabekoak arlo horretan babesteko eta hez-teko eskura dituzten bitartekoak ezagutzeko.**

2009an, beste edizio bat ezagutu zuen, laugarrena, "Familia eta ikus-entzunezko pantailak" izeneko kanpainak. CoAN kontseiluak bultzatzen du kanpaina hori, Nafarroako Gobernuako Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzarekin. Ekimen horren bidez, familien eskaerei erantzuten diete bi erakundeek; izan ere, familiek laguntza eskatzen dute, beren **seme-alabek telebistaren eta ikus-entzunezko beste pantaila batzuen erabilera eta kontsumo ona egin dezaten**. Kezka horren iturburua da telebistak, eskuko telefonoak, bideojokoek eta Internetek eragin nabarmena dutela haurren eta gazteen garapenean eta jokabideetan.

"Familia eta ikus-entzunezko pantailak" kanpainako prestakuntza-lantegiak urteko laugarren hiru-hilekoan egin ziren; zehazki, 2009ko urriaren 20aren eta abenduaren 15aren bitartean. **Guztira, 31 saio egin ziren:** 20 saio Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza ikasleen gurasoei zuzenduak izan ziren ("Familia, telebista eta beste pantaila batzuk") eta 11 saio nerabeen gurasoei zuzenduak ("Familia eta teknologia berriak"), nerabeek ohiko komunikabideak baino gehiago erabiltzen baitituzte azken horiek. Guztira, **Nafarroako 434 familiak parte hartu zuten lantegietan.**

Saioetan, aditu batek modu ulerterraz eta ari- nean azaltzen ditu **telebistari eta gainerako pantailaei buruzko oinarrizko kontzeptuak**, adingabekoen heziketarekin duten lotura aintzat hartuta. Horrez gain, ideia batzuk ematen ditu **pantaila horiek ematen duten aukera hezigarriak baliatze eta familiak haien erabilera txarrik ez egiteko**. Lantegi bakoitzak ordu eta erdiko iraupena du, eta parte-hartzaileei karpeta bat ematen zaie, berariaz kanpainarako prestatu diren material didaktikoekin. Material horien bidez, lantegietan landutako ideiak osa ditzakete gurasoek beren etxeetan.

2009an, Iruñean eta haren eskualdean eskainitako lantegien %45 egin ziren, eta Nafarroako gainerako lekuetan eskainitako ia %55. Azken horien artean, herri txikiak daude, Areso, Uxue eta Igantzi modukoak.

DATU OROKORRAK	Familia, telebista eta beste pantaila batzuk	Familia eta teknologia berriak	Kopurua
Egindako lantegiak	20	11	31
Parte-hartzaileak	268	166	434
Non		%	Kopurua
Iruñea eta haren eskualdean		%55	17
Nafarroako gainerako lekuetan		%45	14

Lantegien **hizkuntzari** erreparatuta, adierazi behar da gaztelania dela nagusi oraindik ere, lan-tegi guztien %93 eskatu baitira gaztelaniaz egiteko eta soilik %7 eskatu ziren euskaraz egiteko. Hala ere, CoAN kontseiluak aukera ematen du lantegiak bi hizkuntza horietan egiteko, eta parte-hartzaileei ematen zaizkien materialak ere bi hizkuntzetan jasotzeko aukera izaten da.

Lantegien eskatzaileak izan dira guraso-elkar-teak (GE), ikastetxeak, oinarrizko gizarte-zerbitzu-ak eta beste talde batzuk, Ikus-entzuleen Defen-tsarako Bulegoaren telefonoaren bidez antolatua: 900 841 014.

Lantegiak egiten hasi zirenetik, **2.254 gurasok** parte hartu dute “Familia eta ikus-entzunezko pan-tailak” kanpainan, eta, zehazki, haren barruko 126 prestakuntza-lantegietan.

Bestalde, 2009ko bigarren seihilekoan, “**Fami-lia eta teknologia berriak**” ikasgela birtualaren garapen teknikoa egin zen (alderdi pedagogikoa 2008an landu zen). Horren ondoren, proba pilotu bat egin zen azaroaren 23tik abenduaren 18ra, eta, bertan, tutore birtual batek lau modulutan argi-taratu zituen edukiak eta elkarrizketa birtualak moderatu zituen. 2010etik aurrera, guraso-elkarte-ei, ikastetxeei eta oinarrizko gizarte-zerbitzuei eskainiko zaie ikasgela birtual hori, “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpainaren barruan.

5. KAPITULUA

CoAN KONTSEILUAREN BARNE-FUNTZIO-NAMENDUA

5.1. OSAERA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren osaera uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak, ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duenak,

A) Funtzionarioak:

Lanpostua	Kopurua	Maila	Erabateko D.	Batera ezinta-suna	Lanpostua	Maila Osag.
Administrazio publikoko teknikaria (arlotik juridikoa)	1	A	-	35	18,72	-
Administrazio publikoko teknikaria (arlotik juridikoa)	1	A	-	35	13,72	
Goi-mailako tituluduna (kazetaria)	1	A	-	35	13,72	-
Erdi-mailako teknikaria	1	B	-	35	6,15	
Administrari laguntzailea	1	D	-	-	13,65	12

B) Behin-behineko langileak:

Lanpostua	Kopurua	Izendapen librea
Kontseiluburuaren idazkaria	1	X
Kudeatzailea	1	X

arautzen du, eta berariaz dio **zazpi kide** dituela, bost Nafarroako Parlamentuak izendatuak eta bi Nafarroako Gobernuak izendatuak.

CoAN kontseiluko kideek **erabateko independ-entziaz** betetzen dute beren kargua, ez baitute aginduzko mandaturik bete behar; hala, autonomi-az eta beren irizpide propioari jarraituz betetzen dituzte beren eginkizunak.

Hau da CoAN kontseiluaren osaera 2009ko abenduaren 31n:

Presidentea:

Ramón Bultó Llevat jauna

Presidenteordea:

Balbino Bados Artiz jauna

Kontseilari-idazkaria:

Juan Andrés Platero Alda jauna

Kontseilariak:

María Victoria Bernad Calza andrea

José María Domench García jauna

Eva Laita Martínez andrea

Pedro Lozano Bartolozzi jauna

5.2. EGOITZA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak **Iru-ñean** du laneko egoitza instituzional eta soziala, eta, 2007ko otsailetik, Arrieta kaleko 8. zenbakiko eraikinaren zazpigarren solairuan ditu bulegoak.

5.3. PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEAK

Otsailaren 24an hartutako 12/2009 erabakiaren bidez (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2009ko apiri-laren 27koa, 50. zk.), plantilla organiko hau onetsi zuen CoAN kontseiluak 2009rako:

2009an, behin betiko bete zen **Goi-mailako teknikariaren lanpostua (kazetaria)**. Lanpostu hori betetzeko, irailaren 25eko 83/2008 Erabakiaren bidez onetsitako lehiaketa-oposizioaldiko prozesua egin zen, eta prozesu hori CoAN kontseiluko buruak irailaren 3an emandako ebazpenaren bidez amaitu zen. Azken ebazpen horrek Kontseiluaren zerbitzupeko funtzionario izendatu zuen David Chivite Pérez eta lanpostua esleitu zion. Lanpostua, zehazki, irailaren 17an hartu zuen.

Plantilla organikoko gainerako lanpostuak, 2009aren amaieran, beteta zeuden aldi baterako izaez. Erdi-mailako teknikariaren lanpostua da salbuespen bakarra. Hala ere, ekainaren 18ko 38/2009 Erabakiaren bidez, CoAN Kontseiluak enplegu publikoko eskaintza onartu zuen, eta ekainaren 25ean, 44/2009 Erabakiaren bidez (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2009ko abuztuaren 21ekoa, 103. zk.), CoAN kontseiluak onartu zuen deialdi bat egitea lehiaketa-oposizioaldi bidez esleitzeko bi lanpostu huts. Hauek dira lanpostu horien ezauzgarriak: **Administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa)**, A maila, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren zerbitzura.

Halaber, irailaren 3ko 51/2009 Erabakiaren bidez, kazetaritzan eta ikus-entzunezko komunikazioan lizentziadunentzako beka-deialdi bat onartu zuen, eta deitutako beka hori urriaren 22ko 65/2009 Erabakiaren bidez eman zen. Beka horren onuraduna azaroaren 1ean sartu zen Kontseiluan.

5.4. AURREKONTUA 2009. URTEAN

5.4.1. COMPTOS GANBERAK 2008 EKITALDIARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA

2009ko abuztuaren 25ean, **Comptos Ganberak 2008ko ekitaldiari dagokion behin betiko fiskalizazio-txostena** bidali zion CoAN kontseiluari.

Txostenak ondorioztatu zuen Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2008 ekitaldiko Kontu Orokorrek behar bezala adierazten dituela sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioko egiazko egoera eta ondareak abenduaren 31n zuen benetako egoera, eta, horrez gain, informazio nahikoa eta egokia ematen duela, kontabilitate publikoaren alorrean onartuta dauden printzipio eta arauak (jaz erabilitakoeekin bat datozenak) betez. Halaber, ondorioztatu zuen CoAN kontseiluaren jardura ekonomiko eta finantzarioa legezotasun-printzipioarekin bat gauzatzen dela.

5.4.2. CoAN KONTSEILUAREN AURREKONTUA 2009AN

CoAN kontseiluak, 2008ko irailaren 25ean egindako bilkuran, **2009. urterako aurrekontuaren aurreproiektua** onartu zuen, programa independente moduan sar zedin Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean, hori egin behar dela agintzen baitu 18/2001 Foru Legeko 31. artikulua.

Horrenbestez, CoAN kontseilua **programa independente** gisa ageri da ("D00-Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua" izenez) 21/2008 Foru Legean, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean. Zehazki, aurrekontu-esleipena 645.000 eurokoa da.

Hau da aurrekontu-sailaren xehetasuna:

Programaren izena eta proiektuarena	Organikoa	Proiektu-kodea	Ekonomikoa	Funtzionala	Aurrekontu-sailaren azalpena	euroak
	GUZTIRA Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua					645.000
D-00 Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua					GUZTIRA D00 programa	645.000
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	D0000				Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	
	D0000	D00000	4459	912200	Nafarroako Gobernuaren Transferentzia arruntak	641.750
	D0000	D00000	7459	912200	Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	3.250

Hau da, beraz, **CoAN kontseiluaren 2009ko aurrekontua:**

1. kapitulua	Pertsonal-gastuak	326.600 euro
2. kapitulua	Funtzionamendu-gastuak	300.000 euro
3. kapitulua	Finantza-gastuak	150 euro
4. kapitulua	Transferentzia arruntak	15.000 euro
6. kapitulua	Inbertsio-gastuak	3.250 euro
GUZTIRA Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua		645.000 euro

2009. ekitaldia amaitu ondoren, aurrekontu bateratua aurrez adierazitako berdina izan zen.

5.4.3. GASTUEN AURREKONTUAREN EGIKARITZA 2009. URTEAN

Hasierako aurrekontu-hornidura 2009. ekitaldirako 645.000 eurokoa izan zen. **Aitortutako obligazioen zenbateko garbia 530.257,10 eurokoa izan zen**, beraz, aurrekontu bateratuarekiko, **bete-**

tze-maila %82,21koa izan zen. Ekitaldi horretan ordaindutako gastua 472.098,41 eurokoa izan zen; horrez gain, "gastu-ondorenak" 58.158,69 eurokoak izan ziren.

5.4.4. GASTU-EGOERA 2009. URTEAN

Gastu-egoeran kapituluak ehunekoaren arabera aztertuz gero, emaitza hauek lortzen dira:

Kap.	BATERATUA	%	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	%	BETETZE-MAILA
I	326.600 €	50,63	261.104,33 €	49,24	%79,94
II	275.000 €	42,63	229.767,61 €	43,33	%83,55
III	150 €	0,02	148,73 €	0,02	%99,15
IV	15.000 €	2,32	13.853,33 €	2,61	%92,35
VI	28.250 €	4,37	25.383,10 €	4,78	%89,85
GUZTIRA	645.000 €		530.257,10 €		%82,21

I. kapitulua. Pertsonal-gastuak

Kapitulu honetako aurrekontu bateratua, 2009an, 326.600 eurokoa izan zen, hau da, gastu-aurrekontu guztiaren %50,63. Aitortutako obligazioen zenbatekoa 261.104,33 eurokoa izan zen. Aurrekontuaren betetze-maila, aurrekontu bateratuarekiko %79,94koa izan zen.

II. kapitulua. Ondasun eta zerbitzu arruntetan egindako gastuak

Aurrekontu-hornidura 275.000 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontu guztiaren %42,63. Betetze-maila %83,55koa izan zen. Kapitulu honetan sartzen dira erakundearen funtzionamenduak eskatzen dituen gastuak; esaterako, bulego-materiala, komunikazioak eta beste enpresa batzuek egindako lanak.

III. kapitulua. Finantza-gastuak

Hornidura 150 eurokoa izan zen, aurrekontu osoaren %0,02, eta betetze-maila, berriz, %99,15koa izan zen. Kapitulu hau kontu korrontearen mantentze-gastuei aurre egiteko erabiltzen da, bai eta ekitaldian zehar sor daitezkeen beste finantza-gastu batzuei aurre egiteko ere.

IV. Transferentzia arruntak

Kapitulu honen aurrekontu-hornidura 15.000 eurokoa izan zen, aurrekontu guztiaren %2,32, eta betetze-maila, berriz, %92,35koa. Kapitulu honen xedea da transferentziak egitea CoAN kontseiluak kidetzat duten irabazi asmorik gabeko erakundetara, eta beka ordaintzea kazetaritzan eta ikus-entzunezkoen komunikazioan lizentziadunari.

VI kapitulua. Inbertsio errealak

Aurrekontu bateratua 28.250 eurokoa izan da, hau da, aurrekontuaren %4,7, eta betetze-maila, berriz, %89,85ekoa. Inbertsio-gastu nabarmenena 2009. urtean CoAN kontseiluaren egoitzan FM irratiko eta LTDko seinaleak hartu eta prozesatzeko sistema berri bat jartzeko egin dena izan da, eta gastu hori izan da kapituluan aitortutako obligazioen guztizkoaren %96,5.

5.5. ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak mugimendu hauek jaso ditu 2009. urtean, eta, horrela jokatuta, bete egin du uztailaren 30eko 54/2007 Erabakiak, **Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra** egin eta mantentzeko Jarrabidea onartzekoak, arautzen duena:

- “Makineria, Instalazioak eta tresneria” izeneko 203. epigrafean, monitarizazio-unitate bat erosi da, FM irratiko eta LDTko seinaleak hartzeko sistema berrirako.
- “Altzariak” izeneko 205. epigrafean, ekitaldi instituzionaletarako euskarri bat erosi da.
- “Informazioa prozesatzeko ekipoak” izeneko 206. epigrafean, zerbitzari berri bat erosi da, seinaleak hartzeko sistema berriaren eskakizunen harian.
- “Beste ibilgetu materiala” izeneko 208. epigrafean, bibliografia-materiala erosi da 2009. ekitaldian.

5.6. AGENDA INSTITUZIONALA 2009. URTEAN URTARRILA

• Urtarrilak 21: Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Alberto Catalán jaunak eta CoAN kontseiluko buru Ramón Bultó jaunak **urtarrilaren 19ko 4/2009 Foru Dekretua** aurkeztu zuten, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabileraren erregulatzen duena.

• Urtarrilak 22: **2009-2011 Plangintza Estrategikoa** onartu zuen CoAN kontseiluak.

• Urtarrilak 30: CoAN kontseiluko kudeatzaile Borja Mora-Figueroak **LTDari buruzko Foroaren 7. bileran** parte hartu zuen.

OTSAILA

• Otsailak 4-5: Elkarriketak egin ziren kazetariekin CoAN kontseiluko egoitzan, 2008. urteko jardueren balantzea egin eta 2009rako oinarrizko jardueraren ildoak aurkezteko.

• Otsailak 12: **‘Edukien Kalitaterako Gutuna haurrak babesteko ordutegian’** izeneko agiria onartu zuen CoAN kontseiluak.

• Otsailak 18: **‘LTDarekin ez galtzeko gida’** aurkeztu zuen CoAN kontseiluak.

• Otsailak 20: ASTRA enpresako (Madril) kudeatzaileak bisita bat egin zuen, Nafarroan LTDak zuen egoerari buruzko informazioa biltzeko. Telekomunikazio-instalatzailen artean egindako azterketa barruan sartu zen ekimen hori, teknologia berri horren eskurapenerako arazoak hautemateko.

• Otsailak 25: CoAN kontseiluko burua eta kudeatzailea Tuterara joan ziren, **ekainaren 30eko itzalaldi analogikoak eragindako udalerrietako alkateekin egindako informazio-saioa**.

• Otsailak 27: CoAN kontseiluko kudeatzaile Borja Mora-Figueroak **LTDari buruzko Foroaren 8. bileran** parte hartu zuen.

• Otsailak 28: Joan Ferrés idazleak idatzitako “La educación como industria del deseo” liburua aurkeztu zuen CoAN kontseiluaren egoitzan.

MARTXOA

• Martxoak 2: CoAN kontseiluko burua eta Kataluniako eta Andaluziako Ikus-entzunezkoen Kontseiluetako buruak Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkariarekin bildu ziren Madrilan.

• Martxoak 13: CoAN kontseiluko kontseilu buru Ramón Bultó jauna eta José María Domench kontseilariak **Iberiar Penintsulako Ikus-entzunezkoen Arautzaileen II. Topaketan** parte hartu zuten.

• Martxoak 28: “Nola hobetu telebistaren edukia? Guztiontzat izanen den telebista bat sortzeko irtenbideak” izeneko hitzaldia eman zuen Ramón Bultó CoAN kontseiluko buruak Excellence programako III. edizioaren baitan.

APIRILA

• Apirilak 21: IQUA agentziaren zuzendaritza-batzordearen bileran parte hartu zuen CoAN kontseiluko kudeatzaileak.

• Apirilak 22: **‘Nafarroako Ikus-entzunezkoen 2008 Barometroa’** aurkeztu zuen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko “Aldaketa sozialak” ikertaldea-rekin batera egindako lana.

MAIATZA

• Maiatzak 6-8: M^a Victoria Bernad eta Eva Laita kontseilariak **EPRA plataformaren 29. bileran** izan ziren, Estonia Tallin hirian.

- Maiatzak 26: Tokiko Prentsaren I. Jardunaldian izan zen CoAN kontseilua.

- Maiatzak 29: Kudeatzailea mahai-inguru batean izan zen ESIC eskolan, eta CoANen komunikazio-estrategia azaldu zuen.

EKAINA

- Ekainak 2: Diario de Navarra egunkariak LTDari buruzko topaketa batean parte hartu zuen CoAN kontseiluko kudeatzaileak.

- Ekainak 3: Bileran bat egin zen Nafarroako hiru eskualde-telebisten arduradunekin.

- Ekainak 5: **Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean agertu zen CoAN kontseiluko burua**, 2008. Urteko Txostena aurkezteko.

- Ekainak 18-19: CoAN kontseiluko burua eta Pedro Lozano **kontseilaria ezintasunak dituzten pertsonentzat ikus-entzunezko komunikabide-erako irigarritasuna sustatzeko IV. Biltzarrean (AMADIS)** parte hartu zuten.

- Ekainak 25: CoAN kontseiluko buruak **LTDari buruzko Foroaren 9. bileran** parte hartu zuen.

UZTAILA

- Uztailak 1: CoAN kontseiluko buru Ramón Bultó jaunak Madrid **“Revisión y Reestructuración del Sector Audiovisual Español”** izenburupean Madrilen egin zen jardunaldian parte hartu zuen. Unidad Editorial taldeak antolatutako jardunaldia, eta hau izan zen kontseiluburuaren interbentzioaren izenburua: “Telebista-publizitatearen erregulazioaren egungo egoera Espainian. Zer ekarpen egiten du ikus-entzunezko Komunikabideen Zerbitzuei buruzko zuzentzarauak?”

- Uztailak 22: **Balear Uharteetako parlamentuko eta gobernuko ordezkari baten bisita** jaso zen CoAN kontseiluen funtzionamendua eta antolamenduaren berri izateko eta **Balear Uharteetan Ikus-entzunezko Kontseilu bat sortzeko** jakintzak eta esperientziak eskuratzeko.

IRAILA

- Irailak 24: “Internet para padres” liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen CoAN kontseiluko kudeatzaileak. CoAN kontseiluak ikus-entzunezko alfabetizazioaren alorrean 2005etik aurrera egiten ari den lana azaltzeko helburua du liburu horrek.

URRIA

- Urriak 14-16: CoAN kontseiluko kontseilu buru Ramón Bultó jauna eta José María Domench kontseilariak **EPRA plataformaren 30. edizioko bileran izan ziren Alemaniako Dresde hirian**.

- Urriak 20: Abian jarri zen **gurasoak alfabetatzeko “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpaina**, CoAN kontseiluak eta Nafarroako Gobernuak, Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiak antolatua.

- Urriak 21: **“Ordainpeko LTDa ulertzeko sei gakoak”** izeneko gida aurkeztu zuen CoAN kontseiluak.

- Urriak 22-24: Lankidetzajarduerak Nafarroako Unibertsitate Publikoan antolatutako Nazioarteko XXIV. Komunikazio Biltzarrean.

- Urriak 29: Nafarroan LTDa ezartzeko prozesua azaldu zuen Ramón Bultó jaunak **Andaluziako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak antolatutako jardunaldi** batzuetan.

- Urriak 30: Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamenduak Hezkuntza Departamenduari lankidetzan antolatutako **“Adingabekoak eta Internet” jardunaldian** parte hartu zuten CoAN kontseiluko kudeatzaileak eta komunikazio-arduradunak.

AZAROA

- Azaroak 2-3: CoAN kontseiluko buruak **“Adingabekoaren babesa eta estatuan sortutako den ikus-entzunezkoen Kontseiluen eskumenak” izeneko hitzaldia** eman zuen Villanueva unibertsitate-zentroak (Madrilgo Complutense unibertsitateari atxikia) antolatutako mintegi honetan ‘Europar Batasuneko ikertzaileen mintegia, haurrak teknologia berrien aurrean babesteko moduak aztertzeko’.

- Azaroak 3: Gaztela eta Leongo Gobernuak eskatuta, Valladoliden egin zen topaketa batean parte hartu zuen CoAN kontseiluko kudeatzaileak, **autonomia-erkidego horretan ikus-entzunezkoen kontseilu bat sortzeko aholkuak eta informazioa emateko**.

- Azaroak 6: Nafarroako Telekomunikazio Ingeinariaren Elkargo Ofizialak antolatutako ‘Telekomunikazioen gauean’ parte hartu zuten CoAN kontseiluko buruak eta kudeatzaileak.

- Azaroak 12: UTECA elkarteak egiten duen Urteko Jardunaldian parte hartu zuen CoAN kontseiluko José María Domench kontseilariak.

- Azaroak 17: Nafarroako hiru eskualde-telebistetako zuzendariak eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen buruak **“Nafarroan ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010” (“CoAN Kodea”)** izenpetu zuten agerraldi publikoan.

- Azaroak 19: Juan Andrés Platero kontseilariak **“Teknologia berriak egoki erabili behar diren**

kontzientziazioa” izeneko hitzaldia eman zuen Dicastillon, AFAMMER-Navarra elkarteak antolatutako “Familiari dagozkion balioei buruzko sentsibilizazioa” jardunaldien baitan.

- Azaroak 24: CoAN kontseiluko kudeatzaileak ikus-entzunezko zerbitzuen agintaritza arautzaileen lantaldearen bilera batean parte hartu zuen, Bruselan, Europako Batzordearekin.

ABENDUA

- Abenduak 14: **ODA bulegoaren publizitate-kanpaina** abiarazi zen.

II. ZATIA IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN PANORAMIKA

Nafarroako Ikus Entzunezkoen Kontseiluak ardura du, besteak beste, “Nafarroako Parlamentuan Urteko Txostena aurkezteko; txosten horretan ebaluatuko dira ikus-entzunezkoen sistemaren garapena, arazoak eta zailtasunak, eta arreta berezia jarriko da edukietan” (18/2001 Foru Legeko 26.1h artikulua). Gai horri buruz hurrengo bi kapituluetan jardunen dugu.

2009. urtean, ikus-entzunezkoen sektorea bera —bereziki, telebista— izan da albiste komunikabideetan, etengabe, “itzalaldi analogikoa” deritzona dela-eta. Bizi izan dugun teknologia-iraultzan informazio, aholkularitza eta pedagogia ugari behar izan da, teknologia berrietara arrakastaz moldatzeko.

Nafarroa buru izan da Lurreko Telebista Digitalera (LTD) igartzeko prozesu horretan, eta 2009ko abenduaren 10ean telebistako emisio analogikoak guztiz atzean utzi zituen **lehenengo foru-komunitatea izan zen**. Horretarako, zatikako bi “itzalaldi” egin ziren: ekainaren 30ean, bata; eta abenduaren 10ean, bestea. Lehenengo itzalaldian, Erriberako eta Lizarrerriko lurren zati bateko biztanleek (81.000 lagun inguru) galdu zuten emisio analogikoak sintonizatzeko aukera. Abenduaren 10ekoarekin, Nafarroako gainerako txokoetan ere “itzalaldi analogikoa” egin eta Nafarroa osoak atzean utzi zituen emisio analogikoak. Hortaz, gure foru-komunitateak aurrea hartu zion Espainiako Gobernuak jarritako mugaegunari (alegia, 2010eko apirilaren 3a).

Nabarmenezkoa da, halaber, Nafarroa izan zela Espainiako autonomia-erkidegoetan lehena, eskualdeko hiru telebisten emisioen **“pizte digitala”** gauzatzen, 2007ko apirilaren 3an. Beraz, oso ondo pasatu gara aro digitalera, beste autonomia batzuekin alderatuta. Izan ere, zenbaitek oraindik ez du kate autonomikoak edo tokiko kateak eslei-

tzeko lehiaketarako deirik egin, edo, esleituta izan arren, ez dute emisiorik, oraindik.

Orobat, itzalaldi analogikoa delakoak **Nafarroaren mugakide diren autonomia-erkidegoetako telebista publikoek** gozatzeko aukera ekarri die gure foru-komunitatean bizi diren nafarrei. Industria Ministerioak dagoeneko eman du horretarako multiplex bat. Eta, orain, gauza bakarra geratzen da: Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak eta Aragoiko Gobernuak (soilik bi gobernu horiek agertu dute interesa beren telebistak foru-komunitatean ikus daitezen) hitzarmen ekonomikoa egitea, kanal autonomiko horien seinale digitala Nafarroaren lurralde osora zabaltzeak dakarren kostua ordaintzeko.

Bestalde, 2009an **Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua (INAAC)** sortu zen, Nafarroako Gobernuaren 2009ko urtarrilaren 26ko Erabakiaren bitartez. Nafarroako Gobernuak honako hauek jarri zizkion helburu INAAC institutuari sortu zenean, besteak beste: Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko eragile guztien artean komunikazioa, taldekatzea eta lankidetzaz sustatzea; sektoreko enpresaburu eta profesionali lehiakor izan daitezen behar dituzten tresnak ematen laguntzea; filmatzeak Nafarroan egin daitezen bultzatzea; Nafarroan zinematografiako eta ikus-entzunezko jarduerak sustatu, antolatu eta haien alde egitea; eta ikus-entzunezkoen kultura eta profesionalen prestakuntza lantzen laguntzea.

Patronatu batek du INACC institutua zuzendu, administratu eta ordezkatzeko ardura. Patronatu horrek era kolegiatuan jarduten du eta bederatzitik buruk osatzen dute; hain zuzen, honako hauek: Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, Iruñeko Udalaren ordezkariak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak eta Merkataritza eta Industriako Nafarroako Ganberaren ordezkariak. CoAN kontseiluari 18/2001 Foru Legeak ezarri zizkion eginkizunak, eta eginbehar horiek lotuta daude foru-komunitateko ikus-entzunezkoen sektorearekin. Kontseiluak, eginkizunak kontuan hartuta, INACC institutuaren patronatuan era formalean sar dadin eskatu du.

2009an, INACC institutuaren lehentasunezko zeregina izan da Film Commission izeneko batzordea sortzea, filmatze zinematografikoak, telebista-koak, bideoak, klip musikaletakoak, dokumentalenak edo publizitateko argazki-erreportajeak foru-komunitatean egin daitezen sustatu eta bultzatzeko bulego gisa jardun dezan.

6. KAPITULUA

TELEBISTAREN PANORAMIKA NAFARRO-AN

Kapitulu honetan Nafarroako telebistaren sektorearen ezaugarri nagusiak azaldu ditugu. Hala-ber, eskualdeko telebisten eskaintza aztertu dugu, eta sektore horretako etorkizuneko arau-esparruan eginen diren xedapenei buruzko atal bat sartu dugu.

6.1. SARRERA

Telebista analogikotik Lurreko Telebista Digitalera igarotzea hainbat urtetako lanaren amaiera da. Lan horretan administrazioko eta ikus-entzunezkoen sektoreko bertako eragileek parte hartu dute, era batera edo bestera.

Nafarroako telebistan, hiru organok ematen dituzte foru-komunitatean emisioak egiteko gaitzen duten tituluak, eta hiru organo horiek egitura-berritze handiak egin dituzte azken ekitaldian, seinale analogikoak atzean utzi eta lehian jarraitu ahal izateko. Hala egin dute eta, 2009ko abendutik hona, eskualdeko telebistak LTDaren bitartez baino ezin dira ikusi etxeetan. Beraz, 2009. urtean egindako lanari jarraipena eman behar zaio. Seinaleak igortzeko bi eraren bitartean bizi izan gara eta, era berean, agertoki bat ireki da, eta Nafarroako telebistak, agertoki horretan, gure foru-komunitateko ikus-entzunezkoen eskaintzaren barruan sar daitezke eta sartu behar dira, eta eduki kalitatezkoak eta desberdinak eskaini behar ditu.

Nafarroako telebisten balioztatzea

Hain zuzen ere, "Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008" azterlanean (CoAN kontseiluak argitaratutako iritzi-azterketa publikoa), nafarrei eskatu zitzaizen gure eskualdeko telebistek Nafarroari buruz ematen dituzten programen kopurua eta kalitatea baliozta zezatela. Azterlanean jasotako datuen arabera, **elkarrizketatuen erdiaren ustez Nafarroako telebistaren kalitatea "oso ona" eta/edo "ona" da**; hala ere, erantzun zutenen %14k uste dut kalitatea "txarra" eta/edo "oso txarra" dela.

Nafarroari buruzko programa-kopurua dela-eta, %38k uste du mota horretako programa "asko" eta/edo "nahiko" daudela, baina %26ren ustez, "gutxi" eta/edo "oso gutxi" daude. %14k naturaltasunez erantzun du era horretako programa-kopurua "egokia" dela, eta %23k ez du galdera hori erantzun.

%26k Nafarroari buruzko programa-kopurua ezegokitzen ("gutxi" eta/edo "oso gutxi") duela kon-

tuan izanik ere, Nafarroako gizartean galdetu da ea telebista horiek foru-komunitateari buruzko berriazko programa gehiago eman beharko lituzketen edo bestelako programekin bateratu beharko lituzketen (filmak, dokumentalak eta abar). Biztanle gehienek bigarren aukeraren alde egin dute. Aurreko galderetan bezala, biztanleen %17k ez du jakin zer erantzun.

'Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008' **azterlanean, orobat, azterketa zehatzagoa egin da Nafarroari buruzko programa gehiago eskatu duen taldearen gainean**. Azterketa horretan kontuan izan da adina, jarduerarekiko lotura, eremu geografikoa, ikasketa-maila eta habitata aldagaiek eragin handiagoa dutela.

Eremu geografikoari dagokionez, Nafarroari buruzko informazio gehiago eskatu dute iparralde eta erdialdeko biztanleek; hiriburuan bizi direnek, aldiz, programa-barrietate handiagoa eskatu dute. Habitata kontuan izanik, ikusi da 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi direnek Nafarroari buruzko programa gehiago eskatzen dituztela. Bestelako iritzia dute biztanle gehiagoko udalerrietako nafarrek; %77k adierazi du programa-mota askotarikoagoak nahi dituela.

Jarduerari lotuta, erretiratuak Nafarroari buruzko programa gehiago izatea nahi dute. Langile eta ikasleek, ordea, askotariko programa gehiago nahi dituzte (ikasleen %89k, esate baterako).

Irizpide soziodemografikoen artean, ikasketa-mailan honako hau ikusi da: ikasketa-maila baxua dutenek eskualdeari buruzko programazio zabalagoa nahi dute; eta, bigarren mailako ikasketak dituztenek, berriz, programa askotarikoagoak nahiago dituzte. Adina irizpidean ere gauza bera ikus daiteke: 44 urtetik beherakoek nahiago dute programazio askotarikoagoa ikusi (29 urtetik beherakoek %86k nahi du hori); aitzitik, 59 urtetik gorakoek Nafarroari buruzko programa espezifiko gehiago izan daitezen nahi dute.

Ikus-entzuleei buruzko datuak

Audimetro-parkeek aukera ematen dute era leialan ezagutzeko zer-nolakoak diren autonomia-erkidegoetako telebistaren ikus-entzuleak, Kantar Mediak ematen dituen datuen bitartez. Espainian audimetro-parkeei esker ezagut daitezke ikus-entzuleei buruzko datuak, baina Nafarroan halakorik ez dagoenez, eskualdeko telebisten ikusleriari buruzko datuak ezagutzeko era bakarra CIES enpresak egiten dituen galdeketak dira.

Zifra metatuek eta 2009. urtekoek honako hau erakusten digute:

OPERADOREA	GUZTIRA	Lanegunetan	Larunbatetan	Igandeetan
Canal 4 Navarra	30.000	29.000	46.000	19.000
Canal 6 Navarra	27.000	28.000	32.000	18.000
Popular TV Navarra	15.000	16.000	13.000	12.000

Iturria: CIES Iritzi- eta merkatu-azterketak. 2009ko datu metatuak.

6.2. NAFARROAKO TELEBISTA-SEKTOREA-REN AZTERKETA

6.2.1. TELEBISTA AUTONOMIKOA

Nafarroan, telebista autonomikoak 2004an ekin zion ibilbideari. Urte hartan eman ziren **emakidak Lurreko Telebista Digitalaren zerbitzua emateko, zuzeneko kudeaketa-erregimenean, telebista komertzialen bitartez**. 2004ko apirillean, bi lizentzia eman ziren Canal 4 Digital Navarra SA eta Editora de Medios Independientes SA (Canal 6) telebista-kateen alde, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren apirilaren 27ko 122/2004 Foru Agindua betez. Lizentzia bakoitzak bi kanal emateko baimena ematen du.

2007ko apirilaren 3an, Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra telebista-kateak emisioa teknologia digitalean ematen hasi ziren. Horri esker, Nafarroak aurrea hartu zien Estatuan emisioak digitalizatzeko ezarritako epeei. Orain arte, bi operadore horiek kanal analogiko bat dute, eta lehenengo kanal digitalak ematen duen emisio bera ematen du. Sistema analogikoa eta digitala batera izan dira 2009. urtearen erdialdera arte Nafarroako Erriberan eta Lizarrerriaren hegoaldean, eta urtearen amaierara arte Nafarroako gainerako tokietan ("itzalaldi analogiko" esan zaie etendura horiei).

Operadoreak, estaldura eta frekuentziak

Lehen esan bezala, foru-komunitatean Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra operadoreak daude gaituta lau kanal emateko (bi kanal enpresa bakoitzak). Biek dute multiplex bera⁽¹⁾, 62.a, eta foru-

komunitatean estaldura duten lau kanal digitalak ditu barnean. 62. multiplexa 802 Mhz frekuentzian dago.

Programazio-edukiak: programak, Nafarroako lanak eta generoak

CoAN kontseiluak etengabe kontrolatzen ditu Nafarroan ematen duten eskualdeko operadoreen programazio-edukiak. Lan horri esker, atal honetan jaso dira, alde batetik, eskualdeko operadoreen programazioko eskaintzak eta, bestetik, ematen dituzten Nafarroako lanen bolumena. Nafarroako Foru Komunitatean telebista autonomikoetako programazioetako generoen banaketa ere adierazi da.

PROGRAMAK


Atal honetan, bi telebista-kateek 2009an eman dituzten ekoizpen propioko programen deskribapen laburra jaso dugu.

CANAL 4 NAVARRA

2009. urtean, Canal 4 Navarra telebista-kateak programazio orotarikoa eskaini zuen, eta arreta nagusia informazioan, gaurkotasunean eta entretenimenduan jarri zuen. Hortaz, ekitaldian zehar, nagusitu egin zitzaion PRISA taldeak 2008ko azaroan iragarritakoak sortu zuen ziurgabetasunari (Localiak Espainian dituen igorgailuak itxiko zituela esan zuen).

Hona hemen operadore horrek berak ekoizitako programak:


(1) Multiplex delakoa frekuentzia irrati-elektrikoko kanala da, eta aukera ematen du barruan telebistako hainbat programa digital eta bestelako zerbitzu digitalak hartzeko, trinkotze-teknikei esker.


 CANAL 4 NAVARRA	
Albistegiak	<u>Astelehenetik ostiralera:</u> Canal 4 Noticias 1 ^a edición (egunero) Canal 4 Noticias 2 ^a edición (egunero) Canal 4 Avances informativos (egunero, iraila eta abendua bitartean)
Gaurkotasuna	7 días (astean behin, apirila eta abendua bitartean) Entérate (astean behin, urtarrila eta martxoa bitartean) Nos queda la palabra (astean behin, martxoa eta ekaina bitartean) Voz y voto (astean behin, urtarrila eta martxoa bitartean eta iraila eta abendua bitartean) El Mirón (astean hiru egunetan) Plató Abierto (astean hiru egunetan, urtarrila eta ekaina bitartean)
Kirola	<u>Programak:</u> Por la escuadra (astean behin) <u>Emankizunak:</u> Pilota (astean behin, martxoan eta azaroa eta abendua bitartean)
Monografikoak	Create (astean behin, iraila eta abendua bitartean) Las cuatro esquinas (astean behin, martxoa eta uztaila bitartean) Navarra sin fronteras (astean behin, martxoa eta ekaina bitartean) Torre de Babel (astean behin, apirila eta abendua bitartean)
San Fermin	<u>Programak:</u> El Encierro (uztailaren 7tik 14ra) Sanfermanía (uztailaren 6tik 14ra) Sanfermix (uztailaren 6tik 14ra) <u>Emankizunak:</u> Txupinazoa (uztailaren 6an) Prozesioa eta meza (uztailaren 7an)
Uda	<u>Astelehenetik ostiralera:</u> Navarra Splash
Bereziak	<u>Emankizunak:</u> 2009ko Elkartasunaren Nazioarteko Nafarroa Saria (otsailaren 17an) Nafarroa Gourmet Saria (maiatzaren 19an) “Carlos III.a Noblearen Gurutzea” ematea (maiatzaren 27an) Juan Bonal Fundazioaren elkartasun-gala (urriaren 24an) Nafarroako Urrezko Dominen ematea (abendua 3an) Kultura-ikuskizunen emankizuna: El flautista de Hamelin eta Alí Babá y los 40 ladrones (abendua 24an eta 31n)

CANAL 6 NAVARRA

2009an, Canal 6 Navarra telebista-kateak askotariko generoak eskaini ditu ekoizpen propio-programazioaren barruan. Halaber, urteko aldiaren arabera (uda, Aste Santua, Eguberriak) pro-

gramak egokitu dituztela ikusi da. Nafarroako gaurkotasun politiko eta sozialean izan diren gertaera aipagarrienen arabera ere era bateko edo bestelako programak egin dituzte, hala nola, albistegi bereziak.

 CANAL 6 NAVARRA	
Albistegiak	Canal 6 Noticias 1ª edición (egunero) Canal 6 Noticias 2ª edición (egunero) Canal 6 Noticias 3ª edición (egunero, iraila eta abendua bitartean) 30 Minutos (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean) Navarra de otra forma (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean, eta abuztua eta abendua bitartean)
Gaurkotasuna	Cara a cara (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean, eta iraila eta abendua bitartean) Reportajes C6 (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean) Encuentros en la Ribera (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean, eta urria eta abendua bitartean) Navarra Pregunta (astean behin, ekaina eta azaroa bitartean) El debate (astean behin, urria eta abendua bitartean)
Kirola	<u>Programak:</u> Área Osasuna (astean behin, urria eta abendua bitartean) Frontis (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean) <u>Emankizunak:</u> Frontenis-partidak (7 partida urtean) Portland eta FCK Handbold taldeen partida (otsailaren 21ean) FCK Handbold eta Portland taldeen partida (martxoaren 7an) Lazio eta Osasuna taldeen partida (abuztuaren 13an) Erremonteko finalerdia Agoitzen (irailaren 27an) Erremonteko finala Agoitzen (urriaren 3an) Erremonteko partida (urriaren 10ean) Itxako eta Oltchim Valcea taldeen partida (urriaren 24an) Gory Audi Eto eta Itxako taldeen partida (azaroaren 1ean) Zvezda eta Itxako taldeen partida (azaroaren 7an) Itxako eta Gory Audi Eto taldeen partida (azaroaren 14an)
Entretanimendua	Objetivo Navarra (astean lau egunetan, urtarrila eta maiatza bitartean; astean hiru egunetan, iraila eta abendua bitartean) Ya falta menos (astean behin, ekainean)
Ekonomia	Navarra emprende (astean behin, urtarrila eta ekaina bitartean, eta iraila eta abendua bitartean)
San Fermin (ekainaren 6tik 14ra, 6 ordu eta erdi zuzenean, egunero)	<u>Programak:</u> Agenda Sanferminera Imágenes del Día Los fuegos 850 Metros San Fermín, San Fermín (<i>Magazinea</i>) <u>Emankizunak:</u> San Ferminetako txupinazoa (uztailaren 6an) San Ferminetako prozesioa (uztailaren 7an) Pobre de mí (uztailaren 14an)
Uda	Abierto por vacaciones (egunero, uztailean eta abuztuan) De Fiesta en Fiesta (astean behin, uztailean eta abuztuan)

 CANAL 6 NAVARRA	
Bereziak	<p>Fitur azokari buruzko emankizun berezia (otsailaren 2an) Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkura (apirilaren 2an, maiatzaren 14 eta 15ean, maiatzaren 20an, maiatzaren 28 eta 29an, ekainaren 11 eta 12an, eta ekainaren 25 eta 26an) Nafarroako Parlamentua (maiatzaren 20an eta maiatzaren 22an) Parlamentuaren urteurrena (apirilaren 3an) Liga Debate urteurrena (apirilaren 7an) 2009ko Turismoaren Gala (maiatzaren 6an) 2009ko Nafarroa Gourmet Gala (maiatzaren 20an) Vianako Printzea sariak (ekainaren 9an) Tuterako txupinazoa (uztailaren 24an) Abierto por Vacaciones programa berezia, Tudelatik (uztailaren 24an) Tafallako jotak (abuztuaren 10ean eta abenduaren 17an) Falcesko jaiei buruzko programa berezia (abuztuaren 20an) Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida (urriaren 15 eta 16an) Adinekoen bilkura (abenduaren 2an) Nafarroaren Eguneko ekitaldiak (abenduaren 3an) Iruñeko Orfeoaren kontzertua (abenduaren 28an)</p> <p><u>Canal 6 Dos:</u> Congreso Televisión Senado Televisión Parlamentu-batzordeak</p> <p><u>Hauteskundeak:</u> Hauteskunde-eztabaida (ekainaren 4an) Europako hauteskundeei buruzko programa berezia (ekainaren 7an)</p> <p><u>Eguberriak:</u> Eguberritako Loterari buruzko programa berezia Eguberritako programa berezia La Morea merkataritza zentrotik Erregetako desfileari buruzko programa berezia Nafarroako Gobernuako presidentearen eguberritako mezua Juan Carlos erregearen eguberritako mezua</p> <p><u>Aste Santua:</u> 6 programa berezi egunero</p>

NAFARROAKO LANAK

18/2001 Foru Legearen arabera, operadoreek urteko emisio-denboraren %10 utzi behar dute, nahitaez, Nafarroan egindako ikus-entzunezko lanak emateko.

Ondoko taulan, 2009an telebista autonomikoek mota horretako emisioetarako utzi duten denbora-

ren ehunekoak xehatu dira. Nafarroako lanen bolumenaren azterketaren oinarri da urteko lehenengo eta laugarren hiru hilabeteetan eskuratutako lagina. Hona hemen jarraipena egin den hilabeteetan Nafarroako lanek hartu duten emisioaren ehunekoak, banakatuta:

	CANAL 4 NAVARRA	CANAL 6 NAVARRA
URTARRILA	%8,00	%26,15
OTSAILA	%9,95	%30,74
MARTXOA	%9,13	%30,44
IRAILA	%14,39	%29,12
URRIA	%15,49	%28,51
AZAROA	%18,10	%26,74
URTEKO BATEZ BESTEKOA	%12,49	%28,62


Adierazitako datuek erakusten dutenez, Canal 6 Navarra telebista-kateak sobera bete du lege Nafarroako lanak emateko eskatzen den gutxieneko ehunekoa (emisioen %28,6 eskaintzen die); Canal 4 telebistak ere bete du eskakizun hori, 2009ko azken lauhilekoko datuei esker.

PROGRAMAZIO-GENEROAK


Generoen araberako emisio-denboraren ehu- nekotako banaketari buruzko azterketak aukera ematen du sakonago ezagutzeko Nafarroako operadoreen programazio-parrillen egitura eta osaera. Horri esker, operadoreek beren eskaintzetan sartu dituzten edukien diseinuan zer nolako oreka ezarri duten ikus daiteke eta, era berean, informazio baliotsua ematen du, ohartzeko zenbateraino bete

diren ikus-entzule izan daitezkeen kezka, interesak eta eskaerak. Jarraian, **programazio osoa eta, bereziki, eskualdeko programazioa generoka sailkatu** ditugu.

Segidan adierazi diren datuetatik ondoriozta daitekeenez, **Canal 6 Navarra** telebista-kateak fikzioaren alde egin du. Hain zuzen, 24 orduko emisioan emandakoaren %40 baino gehiago hartu du genero horrek, bai eskualdean bertan, bai kate-eskaintzan. Bigarren tokian, albistegiak daude (%26), eta tarte handi samarra dago honen eta aurreko generoaren artean. Eta, hirugarrenik, emandako programazioaren %16 hartu dute kultura-programek.



Canal 4 Navarra telebistaren parrillan ere, genero nagusia fikzioa da, programazio-eduki gehiena hartu baitu (%33, guztira). Horren segidan dira salmenta-programak eta kultura-kategoriaren barruan sartutakoak.



CoAN kontseiluak, informazio horren osagarri, operadore autonomikoek emandako **eskualdeko programazioan** oinarritutako generokako banaketaren analisia egin du. Azterlan horretan 2009ko 12 hilabeteetatik sei hilabeteko datuak hartu dira lagin-espektrotzat. Alderaketa-tauletan, gainera,

2008ko datuak eta 2009ko azken hilabeteetan lortutakoak sartu dira.

Ateratako datuetatik ondorioztatuenez, Canal 6 Navarra telebistan bertako albistegiak dira nagusi (guztizkoaren %58) eta, ondoren datoz entretenimendukoak kategorian sartu diren programak (%29).

CANAL 6 NAVARRA	BATEZ BESTEKO (2009)	2009ko 4. hrh	2008ko 4. hrh
ALBISTEGIAK/DIBULGAZIOZKOAK	%62,3	%58,5	%43,1
ENTRETENIMENDUKOAK	%20,6	%29,3	%43,5
KULTURALAK	%13,3	%8,8	%11,3
KIROLARI BURUZKOAK	%3,8	%3,4	%2,1
GUZTIRA	%100,00	%100	%100

Albistegi-programak nabarmendu dira Canal 4 Navarra telebistan ere. Tokiko emisioaren guztizkoaren %40 inguru hartuta, buruan dira. Hala ere,

2009. urteko azken hilabeteetan kategoria horrek guztizko emisioaren %70 bete zuen.

CANAL 4 NAVARRA	BATEZ BESTEKOA (2009)	2009ko 4. hrh	2008ko 4. hrh
ALBISTEGIAK/DIBULGAZIOZKOAK	%38,4	%73,0	%62,1
ENTRETENIMENDUKOAK	%32,9	%9,9	%15,5
KULTURALAK	%19,3	%10,5	%15,7
KIROLARI BURUZKOAK	%9,4	%6,6	%6,3
ERLIJIOARI BURUZKOAK	%0,0	%0,0	%0,4
GUZTIRA	%100	%100	%100

6.2.2. TOKIKO TELEBISTA

Nafarroako Foru Komunitateari bost tokiko LTDren mugape esleitu dizkio Tokiko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionalak. Mugape guztietan Popular TV Navarra telebista-katea izan da esleipendun mugapeak ustiatzeko, zeharkako kudeaketaren bidez, eta horretarako administrazio-lehiaketak eginda. Zehazki, 2005eko abuztuaren 8an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren 236/2005 Foru Aginduren bitartez Televisión Popular de Navarra, SA enpresari esleitu zitzaion tokiko telebista digitaleko kanal baten emakida, Iruñeko mugapean. Eta, 2007ko otsailaren 5ean, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren 47/2007 Foru Aginduak enpresa berari eman zizkion lau administrazio-emakida, Tuteran, Lizarran, Tafallan eta Zangozako mugapeetan tokiko telebista digitalaren zerbitzu publikoa kudeatzeko.

Operadoreak, estaldura eta frekuentziak

Popular TV Navarra LTDren bost administrazio-emakidaren esleipendun da, kanal bana emateko Nafarroa osatzen duten bost mugapeetan: Iruña (38. kanala, 610 Mhz frekuentzian), Tute-


ra (42. kanala, 642 Mhz frekuentzian), Zangoza (45. kanala, 666 Mhz frekuentzian), Tafalla (31. kanala, 506 Mhz frekuentzian) eta Lizarra (25. kanala, 506 Mhz frekuentzian).

Edukiak: programak, Nafarroako lanak eta generoak

Ondoren, tokiko operadorearen eskaintzaren berri eman dugu; orobat, Nafarroako lanen bolumenari eta programazio-parrillan egin den generoen banaketari buruz lortu ditugun datuak ere erakutsi ditugu.

PROGRAMAK

Popular TV Navarra telebistak, 2009. urtean, askotariko generoak eta programa ugari sartu zituen programazioan. Astero hamabost programa ekoitzi eta eman zituen, programa berezien emankizunak kontuan hartu gabe. Popular TV Navarra telebista-kateak nabarmen gehitu zuen zuzeneko emankizunen kopurua, bai eta gure foru-komunitatean izandako jazoera edo gertaera aipagarriei buruzko programa berezien emisio-kopurua ere.

 POPULAR TV NAVARRA	
Albistegiak	<u>Astelehenetik ostiralera:</u> Popular Televisión Noticias 1ª edición (egunero) Popular Televisión Noticias 2ª edición (egunero) <u>Larunbat eta igandeetan:</u> Signos (astean bi egunetan)
Gaurkotasuna	Contraste (astean behin) Sala de Prensa (astean behin) 15 minutos (hamabost egunez behin) Usted dirá (hilean behin)
Kirola	<u>Programak:</u> Sólo Osasuna (astean behin, martxo eta ekaina bitartean) Tercera Parte (astean behin, ekainera arte) Al Rojo Vivo (astean behin, ekainera arte) Popular Deportivo Navarra (astean behin, irailetik aurrera) Nafarroako Txirrindularitza Itzuliaren eguneroko laburpena (maiatzaren 27tik ekainaren 1era) eta amaierako laburpena (ekainaren 2an) <u>Emankizunak:</u> Futbola, 3. maila (astean behin, urtarriletik aurrera)
Haur eta gazteentzat	Kdamos (astean behin)
Entretanimendua	Cristina y Cía (astean behin) Guiados (astean behin, ekainera arte)
Ekonomia	Valora Navarra
Erljioari buruzkoak	<u>Programak:</u> Iglesia Navarra (astean behin) A fondo (astean behin) <u>Emankizunak:</u> Igandeetako meza (astean behin) Ehorzte Santuaren prozesioa (martxoaren 9an) Avilako San Joanen meza (maiatzaren 10ean)
San Fermin	<u>Programak:</u> La cuenta atrás (egunero, San Ferminen aurreko astean) Vaya Peña (egunero, uztailaren 6tik 14ra) Mozos y Toros (egunero, uztailaren 6tik 14ra) Toma San Fermín (egunero, uztailaren 6tik 14ra) <u>Emankizunak:</u> Txupinazoa (uztailaren 6an) San Ferminetako prozesioa eta meza nagusia (uztailaren 7an)
Bereziak	<u>Programak:</u> Navarra en Fitur (urtarrilaren 30ean) Segunda Javierada (martxoaren 15ean) Navarra Reyno Gourmet ekitaldiari buruzko bi programa berezi <u>Emankizunak:</u> Iruñeko erregetako desfilea (urtarrilaren 5ean) Popular TV Navarra telebistako IV. Gabon-kanten lehiaketa Lehen Xabierraldiko meza (martxoaren 8an) Kulturaren Vianako Printzea saria (ekainaren 9an)

NAFARROAKO LANAK

Emisio autonomikoetarako gaitutako operadoreek bezala, tokiko operadoreek ere urteko emisio

guztien %10 Nafarroako lanak emateko utzi behar dute, legean xedatutakoaren arabera. Ondoko taulan, aztertu diren hilabeteetan Nafarroako lanek hartu duten programazioaren ehunekoa azaldu da:


POPULAR TV NAVARRA	
URTARRILA	%11,99
OTSAILA	%12,97
MARTXOA	%12,50
IRAILA	%15,05
URRIA	%23,23
AZAROA	%24,70
URTEKO BATEZ BESTEKOA	%16,76

Lortutako datuak aztertuta, ondorioztatu da operadoreak bete duela legez eskatzen zaion gutxienekoa (urtean programazioaren %10 Nafarroako lanentzat), programazio osoaren %16,76 bete baitu Nafarroako lanekin.

denbora ehunekotan banatuz gero, ikus daiteke salmenta-programek leku handia hartu dutela, programazioaren %31,7. 2009an edukiaren gehiengoa hartu zuten.

PROGRAMAZIO-GENEROAK

Popular TV Navarra telebista-katearen programazio osoan genero bakoitzak izan duen emisio-



Bigarren bloke esanguratsua fikzioa izan da, eta hirugarren izan da operadore autonomikoetan agerpen handiena izan duen generoa: albistegiak (%15).

Eskualdeko programazioaren berriazko analitik ondoko datuak atera dira, eta aurreko urtean denbora-aldi berean eskuratutakoekin alderatu dira. 2008an gertatu bezala, 2009an ere nagusi

izan dira albistegiak eta dibulgaziozko programak (%31). Nabarmenezkoa da, halaber, entretenimendu- eta kirol-programak izan direla Popular TV Navarra telebistako tokiko programazioaren beste bi ardatzak, eta posizio horretan finkatu dira. Gainera, kultura-generoak lehendik izan duen agerpenari eutsi dio, eta erlijio-programak ere mantendu dira, operadorearen lerro editorialaren arabera.

POPULAR TV NAVARRA	BATEZ BESTEKO (2009)	2009ko 4. hrh	2008ko 4. hrh
ALBISTEGIAK/DIBULGAZIOZKOAK	%30,8	%42,1	%40,2
ENTRETENIMENDUKOAK	%23	%27,4	%15,7
KIROLARI BURUZKOAK	%22,2	%19,6	%21,1
KULTURALAK	%16,1	%7,7	%14,9
ERLIJIOARI BURUZKOAK	%7,9	%3,2	%8,1
GUZTIRA	%100	%100	%100

6.2.3. TVE NAVARRA

RTVE erakundeak Nafarroan duen Lurralde Zentroa estatuko telebista-operadore publikoak foru-komunitatean duen hurbiltasunaren adierazgarri da.

Eguneroko albistegiak osatzen du TVE Navarra telebistaren eskualde-programazioa. Albistegia **eguerdietan izaten da, eta 30 minutuko iraupena du.** Horren osagarri da 'Arin Arin' tartea; lau minututan eguneko titularrak aurkezten ditu, euskaraz.

Bestalde, RTVE telebistak Nafarroan duen Lurralde Zentroak **foru-komunitateari buruzko edukiak** bildu eta ematen ditu, **TVE** telebistako albistegi-zerbitzuetako **zenbait saiotarako.** Orobat, Nafarroan gertatutakoari buruzko edukiak ematen dizkie zenbait programari, hala nola, TVE telebistaren La 2 kateko 'España en Comunidad' programari; eta TVE telebistako Canal 24 horas kateko 'España en 24 horas' eta 'Natural' programei.

San Fermin festetan, programazio berezia ematen du; besteak beste, txupinazoaren eta entzierroen zuzeneko emanaldia egiten ditu.

6.3. ARAU-ESPARRU BERRIARI BURUZKO AURREIKUSPENAK

2010eko maiatzaren 1ean sartu zen indarrean **Ikus Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Lege Orokorra.** Horrekin, beste esparru orokor bat ezarri da, ikus-entzunezkoen sektorea lantzeko, bai estatuan bai foru-komunitatean.

Lege hori berriki onartu dute Gorte Nagusiek, eta apirilaren 1ean argitaratu zen BOEn. Lege horrekin, bete da ikus-entzunezkoen sektorearen, kontsumitzaileen eta Nafarroako Ikus Entzunezkoen Kontseiluaren beraren aspaldiko eskaera bat. Orobat, Espainiako ordenamendu juridikora sartu da **Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2007ko abenduaren 11n emandako 2007/65/EE Zuzentaraua, Ikus Entzunezko Komunikazio Zerbitzuei buruzkoa.**

Ikus Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Lege Orokorren hitzaurrean adierazitakoaren arabera, lege horren xedea da "indarrean den eta oraindik baliozkoa den araudia laburbiltzea, aldaketa handiak egin zaizkien alderdiak eguneratzea eta inolako lege-esparrutan sartuta ez dauden egoera berriak arautzea. Eta, hori guztia, honako eginkizun hauek egite aldera: segurtasun juridikoa eman industriari, Europako merkatuan lehiatzeko gaitasuna duten ikus-entzunezkoen sektoreko enpresa taldeak sortzeko aukera eman, eta negozio-eredu berriak era arautuan ireki (hala nola, LTD ordaindua, bereizmen handia eta telebista mugikortasunean) (...). Hori guztia egitean, bermatuko da, halaber, aniztasuna eta herritarren eskubideak babesteko direla (...), eta gardentasunez jokatzeko eta lehiarako arau argiak ezarriko dira."

Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra zenbait berritasun ekarri du, besteak beste, **Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseilua (CEMA)** sortzea. Kontseilu horrek ikus-entzunezkoen sektorea arautu eta ikuskatuko du, eta botere politiko eta ekonomikoekiko independentzia-printzipioaren pean erabiliko ditu eskumenak. Zigor-

tzeko ahalmena izanen du, eta kontseilukideak Diputatuen Kontseiluko hiru bosten gehiengo kalifikatuz hautatuko dira.

CEMA izanen da CoAN kontseiluaren homologo Espainian. CoAN kontseiluak lanean dihardu 2002. urteaz geroztik, Nafarroan, foru-komunitateko ikus-entzunezkoen sektoreko agintari independente gisa. Orduetik hona, CoAN kontseiluak komunikabideen erabiltzaileen eskubideak babesten ditu; irradi eta telebistako askotariko operadoreek eskaintzen dituzten edukietan haurrak, gazteak eta aniztasuna errespetatuko direla ziurtatzen du; kasuan kasuko ikus-entzunezko legedia bete dadin zaintzen du; eta ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzen du Nafarroan.

Bestalde, araudi berri horrek honako alderdi hauek ere arautzen ditu, besteak beste: adingaberen babesa; telebistako publizitatea, orduko hogeimintu, batera hartuta ohiko iragarkiak (12 minutu), autopromozioa (5 minutu) eta telepromozioa (hiru minutu); eta eskaintza interaktiboa eta irradi eta telebistako zerbitzu publikoa.

Azkenik, 7/2010 Legeak, martxoaren 31koak, aurreko hamabi lege guztiz indargabetzen ditu, bai eta beste sei legeren zati batzuk ere. Horrek erakusten du orain arte Espainian ikus-entzunezkoen sektorea arautzen zuen araudia "sakabanatua, osatu gabea eta, batzuetan, zaharkitua zela". Hala onartzen du Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra berak ere.

Orain, araudia garatu eta Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra aplikatu arte itxaron beharko da, ikusteko zenbateraino konponduko diren Espainiako ikus-entzunezkoen sektoreko arazoak, haietako asko endemikoak.

Orobat, **Nafarroako Parlamentuak Estatuko legedi berrira egokitu beharko du 18/2001 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautzen duena eta Nafarroako Ikus Entzunezkoen Kontseilua sortzen duena.**

7. KAPITULUA

IRRATIAREN PANORAMIKA NAFARROAN

2009. Urteko Txosteneko zazpigarren eta azken kapituluan Nafarroako irradiaren panoramen egoera aztertu da, eta arreta berezia jarri da eskualdeko eta tokiko programazio-eskaintzan.

7.1. SARRERA

2009. urtea bukatzeko bi egun falta zirenean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJN), epai berri baten bitartez, eraginik gabe utzi zuen,

bigarrenez, Iruñeko 98.3 FM eta 105.6 FM irrati-kateen emakida.

TSJNko Administrazioarekiko Auzien Salak, abenduaren 30eko 803/2009 epaiaren bitartez, baliogabetu eta eraginik gabe utzi zituen aipatutako bi emakidak, Iruñean frekuentzia-modulazioduneko uhin metrikoen bidezko irratidifusio soinudunaren zerbitzua emateko (98.3 FM eta 105.6 FM). Bi emakida horiek Nafarroako Unibertsitateak eta Medios de Comunicación 21, SL enpresak lortu zituzten, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren irailaren 8ko 278/2006 Foru Aginduaren arabera.

TSJNaren epaiaren aurka helegitea aurkeztu da. Epai horretan xedatutakoaren arabera, aipatutako emakidak esleitzeko prozedura atzera eraman behar da, kontratazio-mahaiak "proposamen egokia" egiten duen unera. Kontratazio-mahaiak, proposamen horretan "osorik eta xehetasunez balioztatu behar du, eta puntuazio egokia eta zehatza eman behar die Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritako irizpide guztiei". Hori egin eta gero jarraitu ahalko da Iruñeko 98.3 FM eta 105.6 FM frekuentziak emateko prozedurarekin, 336/1997 Foru Dekretuak xedatu bezala.

Horixe da 2009. urtean Nafarroako irradi-sektorean egin den berritasun esanguratsua. Gainera, emakida baten titulartasuna besterendu da, eta irradi-kate batek eskatutako erabiltzeko lagatzeari ezezkoa eman zaio.

Hortaz, eta lehendabizi, Gobernuaren eledun eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren otsailaren 19ko 81/2009 Foru Aginduaren bidez onartu zen **99.2 Mhz irradi-katearen titulartasunaren emakida besterentzea**, UNIPREX, SAU enpresaren alde. Era berean, aginduak xedatu zuen irradi-kate hori ustiatzeko jatorrizko emakidak zituen ezaugarri eta baldintza berak bete behar direla. 2008ko azaroaren 27an, CoAN kontseiluak azaldutakoaren aldeko txostena eman zuen.

Bestalde, Gobernuaren eledun eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren ekainaren 4ko 301/2009 Foru Aginduak **Medios de Comunicación 21, SL enpresari ukatu zion** Corporación Radiofónica Información y Deporte SL enpresari Iruñeko frekuentzia-modulazioduneko uhin metrikoen bidezko irratidifusio soinuduneko irradi-katearen (105.6 Mhz) emakida **erabiltzeko lagatze-baimena**. CoAN kontseiluak, maiatzaren 14ko 26/2009 Erabaki bidez, onartu zuen Komunikazio-etarako Zuzendaritza Nagusia – Eledunaren Bulegoak egindako txostena, erabiltzeko lagatze-eskera horri buruz, eta honako hau ondorioztatu zuen: "lagatzea baimentzeko, enpresa lagapen-hartzaile-

ak argi eta garbi hitz eman behar du programazioa eginen duela, NET 21 enpresak laga asmo den erabilera duen irrati-katea esleitu zitzaionean beteko zituela hitz eman zuen baldintza beretan." Eta, beste paragrafo batean, honako hau gehitu zuen: "Corporación Radiofónica Información y Deporte SL enpresak proposatu duen programazio-parrilla eta Net 21 enpresak hasieran aurkeztu zuen programazio-eskaintza ez datoz bat".

Irrati-audientziak

Nafarroako 2009ko irrati-audientziari dagokionez, CIES enpresak emandako datuen eta egin duen Nafarroako Hedabideen Audientzien Azterketaren arabera, aurreko urtean baino 5.000 entzule gutxiago izan da 2009an, guztira. Nafarroan, orotariko irratiak 11.000 entzule galdu ditu 2009an; irrati tematikoak, ordea, guztira 6.000 jarraitzaile gehiago lortu ditu.

		GUZTIRA	Lanegunetan	Larunbatetan	Igandeetan
2009	Orotariko irratia	201.000	218.000	180.000	136.000
2008		212.000	227.000	179.000	165.000
2007		205.000	216.000	179.000	175.000
2009	Irrati tematikoa	105.000	115.000	90.000	75.000
2008		99.000	113.000	71.000	54.000
2007		85.000	94.000	69.000	57.000

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean emititzeko titulu gaitzailea duen operadore bakoitza

aztertu dugu, eta 2009an honako entzuleria-datu hauek eman ditu azterketak:

IRRATI-KATEAK	GUZTIRA	Lanegunetan	Larunbatetan	Igandeetan
SER Pamplona	37.000	39.000	36.000	30.000
Radio Pamplona - Los 40	34.000	39.000	30.000	14.000
Onda Cero Pamplona	29.000	32.000	24.000	16.000
COPE Pamplona	21.000	22.000	20.000	14.000
Cadena 100	19.000	21.000	20.000	9.000
Europa FM	17.000	19.000	11.000	14.000
Radio 1 Navarra	16.000	19.000	12.000	10.000
Radio 5 Navarra	12.000	13.000	9.000	12.000
Kiss FM	12.000	12.000	13.000	11.000
SER Tudela	12.000	12.000	6.000	13.000
SER Tafalla	9.000	11.000	9.000	1.000
Radio 3 Navarra	7.000	8.000	1.000	8.000
Onda Cero Tudela	7.000	7.000	9.000	4.000
Onda Melodía Pamplona	6.000	7.000	4.000	4.000
Onda Cero Estella	4.000	4.000	4.000	2.000
98.3 Radio	3.000	2.000	5.000	2.000
Net 21 Radio	3.000	2.000	1.000	4.000
Onda Cero Elizondo	2.000	2.000	4.000	2.000
Cadena Dial Tafalla	2.000	3.000	0	0
Onda Cero Alsasua	2.000	1.000	5.000	2.000
COPE Peralta	2.000	2.000	0	3.000
Onda Melodía Tudela	1.000	2.000	0	2.000
Xorroxin Irratia	1.000	1.000	2.000	2.000
Punto Radio Tierra Estella	1.000	1.000	2.000	2.000
Radio Clásica	1.000	1.000	0	0

Iturria: CIES iritzi- eta merkatu-azterketak. 2009ko datu metatuak.

7.2. NAFARROAKO IRRATI-SEKTOREAREN AZTERKETA

7.2.1. IRRATI-KATEAK: HERRIAK ETA FREKUENTZIAK

Irrati-kate komertzialak

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatean 20 administrazio emakida daude zeharkako kudeaketa bidez frekuentzia-modulazioduneko uhin metrikoen bidezko irratidifusio soinudunaren zerbitzua emateko:

Herriak eta frekuentziak	Emakidaduna	Izen komertziala	Behin betiko emakida
IRUÑA 87.9	RADIO POPULAR, S.A.	CADENA 100	1982/08/11
IRUÑA 92.2	RADIODIFUSORA NAVARRA, S.A.	RADIO PAMPLONA CADENA 40	1982/08/11
IRUÑA 94.2	UNIPREX, S.A.	ONDA CERO PAMPLONA	1988/09/06
IRUÑA 94.9	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA MELODÍA	1983/07/15
IRUÑA 89.3	RADIO BLANCA, S.A.	KISS FM	1992/12/28
IRUÑA 99.2	UNIPREX, S.A.	EUROPA FM	1993/11/02
IRUÑA 105.6	MEDIOS DE COMUNICACIÓN 21, S.L.	NET 21 RADIO	2007/05/21
IRUÑA 98.3	UNIVERSIDAD DE NAVARRA	98.3 RADIO	2007/05/21
TUTERA 90.4	ANTENA 3 DE RADIO, S.A.	SER TUDELA	1987/05/14
TUTERA 103.1	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA MELODÍA	1993/05/03
TUTERA 99.4	RIBERA NAVARRA, S.L.	ONDA CERO TUDELA	2002/11/08
TAFALLA 96.3	AGRUPACIÓN RADIOFÓNICA, S.A.	CADENA DIAL	1995/01/30
TAFALLA 93.9	SOCIEDAD ESPAÑOLA DE RADIODIFUSIÓN, S.L.	SER TAFALLA	1992/01/13
LIZARRA 89.5	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ESTELLA	1984/01/26
LIZARRA 93.4	RADIO PUBLI, S.A.	PUNTO RADIO TIERRA ESTELLA	2002/11/08
AZKOIEN 104.7	RADIO POPULAR, S.A.	COPE PERALTA	1992/06/22
ALTSASU 87.9	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ALSASUA	1993/05/03
ELIZONDO 91.3	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ELIZONDO	1993/05/03
LESAKA 88.0	XORROXIN ELKARTEA	XORROXIN IRRATIA	2003/02/17
ZANGOZA 92.6	MEDIPRESS, S.A.	-	2010/01/25

Uhin ertainari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-kateen zeharkako ustiapena honako enpresa hauei esleituta dago: Radio Popular, SA (EAK-4) eta Radiodifusión Navarra, SA (EAJ-6). Frekuentzia hauek dituzte esleituta, hurrenez hurren: 1134 Khz eta 1575 Khz.

Estatuko irrati-kate publikoak

Bestalde, Estatuak **Radio Nacional de España** erakundearen bitartez kudeatzen du, zuzenean, frekuentzia-modulaziodunaren bidezko irratidifusio soinudunaren zerbitzua, 169/1989 Errege Dekretuak onartutako Irrati Zabalkunderako Plan Tekniko Nazionalako I. eranskinean xedatutakoarekin bat (aipatutako dekretuak frekuentziak ezarri zituen, eta horien bitartez ematen da zerbitzua). Nafarroan, honako hauek dira:

Irrati-katea	Radio 1	Radio Clásica	Radio 3	Radio 5
LIZARRA	89.0	101.2	100.5	90.9
GORRAMENDI	88.3	99.0	100.6	95.3
IBANETA	89.6	93.8	103.4	101.9
ISABA	90.3	95.1	103.0	91.8
LA PLANA	102.5			104.3
LEIRE	88.9	101.0	99.6	90.5
LEITZA	102.2	91.9	89.8	88.2
LESAKA	90.6	94.8	97.0	102.2
MONREAL	106.1	97.5	93.0	95.7
MUSKILDA	102.3	93.4	95.9	97.8
BERRIOPLANO	104.8	97.1	102.3	103.7
ARALAR	96.7	100.0		102.7
TUTERA	100.9	102.2	91.3	88.3
ZUDAIRE	101.7	91.9	100.7	88.3

Uhin ertainean, Estatuak honako hauen bitartez kudeatzen du, zuzenean, irrati-zerbitzua, Nafarroan: RNEren Radio 1 (855 Khz); eta Radio 5 Todo Noticias (531 Khz).

Udal irrati-kate publikoak

11/1991 Legeak, apirilaren 8koak, Irratidifusio soinuduneko udal irratiak antolatu eta kontrolatze-

ari buruzkoak, oinarritzko arauak xedatu ditu **udal-titulartasuneko irrati-kateen** bitartez frekuentzia-modulazioduneko uhin metrikoen bidezko irratidifusio soinudunaren zerbitzu publikoa emateko.

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatean **hamar udal irrati-kate** daude jardunean. **Bost irratik frekuentzia-erreserba dute**, eta askotariko izapideak noiz egin zain daude. Hona hemen:

herriak eta frekuentziak	Emateko erabakia	Frekuentzia-erreserba
ARTAJONA 107.8 Mhz	1996/09/16	
BASABURUA 107.9 Mhz	2002/02/20	
BERRIOZAR 100.8 Mhz	1996/09/16	
CORELLA 107.5 Mhz	2008/08/11	
FONTELLAS 107.2 Mhz	2002/02/25	
LEKUNBERRI 107.1 Mhz	1997/06/16	
MARCILLA 107.9 Mhz	1997/06/16	
SAN ADRIAN 107.7 Mhz	1996/09/16	
VALLE AEZKOA 107.7 Mhz	2008/08/11	
IRUÑA 93.7 Mhz	2010/02/08	
VALLE DE BAZTAN		107.3 Mhz
ETXARRI ARANATZ		107.3 Mhz
LEITZA		107.6 Mhz
VALLE DE OLLO		107.0 Mhz
ANTSOAIN		90.7 Mhz

7.2.2. PROGRAMAZIO-EDUKIA

Ondoko taulan zerrendatu dira 2009an Nafarroako Foru Komunitatean frekuentzia modulatuan

ematen duten irrati-operadoreek eman dituzten ekoizpen propioko programak (bakoitzak dagokion administrazio-emakida du):

A) IRUÑA

87.9 Pamplona [Cadena 100]

Ez zuen ekoizpen propioko programarik eman; soilik publizitaterako deskonexioak.

89.3 Pamplona [Kiss FM]

Programazioaren barruan ez zuen ekoizpen propioko eremurik; soilik zenbait publizitate-deskonexio egin zituen.

92.2 Pamplona [Radio Pamplona Cadena 40]

Astelehenetik ostiralera:

10:00etatik 14:00etara: **40 Principales Fórmula Pamplona**

Larunbat eta igandeetan ez zuen tokiko programarik eman.

94.2 Pamplona [Onda Cero Pamplona]

Astelehenetik ostiralera:

07:20tik 07:30era: **Eskualdeko albistegia**

08:20tik 8:30era: **Tokiko albistegia**

12:30etik 14:00etara: **Pamplona en la Onda**

14:20tik 14:30era: **Noticias de Navarra**

15:05etik 16:00etara: **Onda Deportiva Navarra**

19:00etatik 19:40ra: **Gente de Navarra** (Al: *La hoja del lunes*; As: *Va por ustedes* edo *Sopas con ondas*; Az: *Tertulia*; Og: *El apuntador*; Or: *Va de cine*)

19:40tik 20:00etara: **Eskualdeko albistegia**

Gainera, orduro bi deskonexio egiten ziren, nagusiki publizitatea eta zerbitzu-informazioa emateko.

Larunbat eta igandeetan ez zuen tokiko programarik eman.

94.9 Pamplona [Onda Melodía Pamplona]

Astelehenetik ostiralera:

19:00etatik 21:00etara: **Rockefor**

Larunbat edo igandean: **Osasuna taldearen partidaren** emankizuna eta, jarraian, futbol-partidaren gaineko iruzkinak **Caliente, Caliente** programan.

Publizitate-deskonexioak ere egiten zituen; ordubeteko emisioko hiru minutu, batez beste.

98.3 Pamplona [98.3 Radio]

Astelehenetik ostiralera:

08:00etatik 08:30era: **98.3 Radio Noticias**

08:45ean: **Kontrapas**

09:00etatik 09:05era: **98.3 Radio Noticias** (*)

09:30ean: **Agenda universitaria**

10:30ean: **Agenda cultural**

10:45ean: **Zatoz Kantari**

11:45ean: **Kontrapas**

12:00/12:02: **Angelusa**

12:30ean: **Noticias del campus**

12:45ean: **Kulturaren Lapikoa**

13:15ean: **Por Navarra**

13:30ean: **Tododeporte**

14:30etik 14:35era: **Agenda**

15:00etatik 16:00etara: **Primera Toma edo Confluencias**

17:00etan: **Agenda universitaria edo La biblioteca**

17:30ean: **Agenda cultural**

18:15ean: **Por Navarra**

21:30etik 21:35era: **Euskal Gunea**

22:00etatik 23:00etara: **Primera Toma edo Confluencias**

23:00etatik 23:30era: **Confluencias edo Primer Plano**

23:30ean: **Un cuento...**

23:45ean: **Un cuento... (E)**

(*) 9:00ak eta 14:00ak bitartean, 98.3 Radio irrati-kateak bost minutuko albistegiak ematen zituen.

Banakatze horretatik ondoriozta daiteke 98.3 Radio irrati-katearen programazioak oinarri duela programen (In memoriám, Euskal Gunea, Confluencias, Primera Toma...) eta mikroespazioen (Agenda cultural, Agenda universitaria, Menudo menú...) bateratzea, ordu *puntuetan*, eta *laurdenetan*, eta *erdietan* eta *laurden gutxiagotan*. Gainerako emisioa musikak hartu zuen.

Larunbat eta igandeetan:

Ekoizpen propioko mikroespazioak, musika eta erreportajeak bateratu zituen.

99.2 Pamplona [Europa FM]

Astelehenetik ostiralera:

12:00etatik 14:00etara: **Europa FM Fórmula Pamplona**

Publizitate-deskonexioak ere egiten zituen; hiru minutuko bi bloke, ordubeteko programazio bakoitzean.

105.6 Pamplona [Net 21 Radio]

Ez zuen programazio propiorik eman, eta ez zuen publizitate-deskonexiorik ere egin.

B) TUTERA**90.4 Tuterako [SER Tudela]**

Astelehenetik ostiralera:

07:50etik 08:00etara: **Informativo local**

08:20etik 08:30era: **Informativo local**

12:20etik 14:00etara: **Hoy por hoy Tudela**

14:20etik 14:30era: **Hora 14 Tudela**

20:25etik 20:30era: **Hora 25 Tudela**

23:55etik 00:00etara: **Informativo local**

Gainera, ordu bi deskonexio egiten ziren, 3 eta 5 minutu artekoak, nagusiki publizitatea eta zerbitzu-informazioa emateko.

99.4 Tuterako [Onda Cero Tudela]

Astelehenetik ostiralera:

08:20etik 08:30era: **Informativo local**

12:30etik 13:50era: **Tudela en la Onda**

13:50etik 14:00etara: **Altavoz de la Ribera**

23:55etik 00:00etara: **Informativo resumen**

Irrati-kate horrek bi deskonexio egiten zituen orduko, 3 eta 5 minutu artekoak, publizitatea edo zerbitzu-informazioa txertatzeko.

103.1 Tuterako [Onda Melodía Tudela]

Ez zuen ekoizpen propioarako espaziorik, eta Onda Melodía Pamplona irrati-katearen emisioa errepikatzen zuen.

C) LIZARRA**89.5 Lizarrako [Onda Cero Estella]**

Astelehenetik ostiralera:

08:20etik 08:30era: **Informativo local**

12:30etik 14:00etara: **Estella en la Onda**

Ordu bi deskonexio egiten zituen, 3 eta 5 minutu artekoak, nagusiki publizitatea eta zerbitzu-informazioa emateko.

93.4 Lizarrako [Punto Radio Tierra Estella]

Astelehenetik ostiralera:

06:55etik 07:00etara: **Informativo local**

07:20etik 07:30era: **Informativo local**

07:50etik 08:00etara: **Informativo local**

08:55etik 09:00etara: **Informativo local**

12:00etatik 14:00etara: **Protagonistas Tierra Estella**

14:08tik 14:30era: **Primera plana de los deportes en Estella**

15:00etatik 16:00etara: Az: **Tertulias locales**; Or: **Música local**

Gainera, irrati-kateak bi deskonexio egiten zituen, orduko hiru minutukoak, publizitatea edo zerbitzu-informazioa emateko.

Larunbatetan:

12:00etatik 14:00etara: **Protagonistas de la semana en Tierra Estella**

D) TAFALLA**93.9 Tafalla [SER Tafalla]**

Astelehenetik ostiralera:

07:55etik 08:00etara: **Informativo local**

08:20tik 08:30era: **Informativo local**

12:30etik 14:00etara: **Hoy por hoy Tafalla**

14:20tik 14:30era: **Hora 14 Tafalla**

23:55etik 00:00etara: **Informativo local**

Publizitatea, zerbitzu-informazioa edo musika sartzeko deskonexioak ordu natural bakoitzeko egiten ziren, bi bloketan, eta 3 eta 5 minutu artekoak ziren.

96.3 Tafalla [Cadena Dial]

Emisorak ez zuen ekoizpen propioa eta tokiko programarik eman; publizitate-deskonexioak baino ez zituen txertatzen, 3 eta 5 minutu artekoak.

E) BESTE HERRI BATZUK**87.8 Altsasu [Onda Cero Alsasua]**

Ez zuen ekoizpen propioa programarik eman eta Onda Cero Pamplona irrati-katearen seinalea eman zuen.

91.3 Elizondo [Onda Cero Elizondo]

Ez zuen ekoizpen propioa izan, eta Onda Cero Pamplona irrati-katearen emisioa eman zuen.

88.0 Lesaka [Xorroxin Irratia]

07:30etik 09:30era: **Bidekari**

09:30etik 10:00etara: **Ur eta lur**

10:00etatik 12:00etara: **Balekabale**

12:10etik 12:40ra: **Joko Trostan Kirol**

12:40tik 14:30era: **Eltzekari**

14:30etik 15:00etara: **Kuluxka Orduan**

20:00etatik 22:00etara: **Karakola Segi Hola**

Gainerako programazioa **musika** izan zen.

Larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara **Bide Eginez** programa ematen zuen; egunaren gaineko orduetan eta igandeetan, egun osoan, **musika ematen zuen**.

104.7 Azkoien [COPE Peralta]

Astelehenetik ostiralera:

12:10etik 13:30era: **La mañana desde Peralta**

13:35etik 14:00etara: Navarra a la Palestra (tokiko informazioa ere ematen zuen)

Gainera, orduro bi deskonexio egiten zituen, 3 eta 5 minutu artekoak, publizitatea, zerbitzu-informazioa edo musika emateko.

7.3. ARAU-ESPARRU BERRIARI BURUZKO AURREIKUSPENAK

Ikus Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Lege Orokorrak, martxoaren 31koak, irrati-difusioaren sektorerako arau-esparru berria ezarri du Espainian.

Ez dugu, oraindik, azterketa zehatzik egin baina, hala ere, ondoriozta daiteke bi berritasun nagusi ekarriko dituela lege horrek, eta berritasun horiek Espainiako irrati epe laburrean zehaztuko dutela. Emititzeko titulu gaitzailerik gabeko irratiak edo irrati "piratak" erroitik kentzea eta irrati-seinalea digitalizatzea dira berritasun aipagarrienak.

Beraz, lehendabizi eta **jarduteko emakidarik ez dutelako legez kontra jarduten duten irrati-kateei** dagokienez, Espainiako Gobernuak Espainiako irrati-kateen mapa bat eginen du. Horrek, aukera emanen du esparru hori garbitzeko eta gaur egun jarduteko baimenik ez duten irrati-diala betetzen duten irrati-kateak ixteko. Helburu hori betetzeko, Irrati-komunikazioetarako Estatuko Agentzia eratuko da. Agentzia horren eginkizun nagusia izanen da irrati-eremua kontrolatzea eta era aktiboan babestea, eremu hori legez kontra hartu edo erabili nahi dutenetatik.

Bigarrenik, eta **irrati-seinalea digitalizatzeari** lotuta, Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrean xedapen iragankor bat sartu da, Espainian irrati digitala bultzatzeko, orain, Estatuan LTD ezartzen bukatu denean. Horretarako, 2011ko urria baino lehen, Espainiako Gobernuak lurreko irratidifusio soinudunaren zerbitzua digitalizatzeko plan teknikoa onartu beharko du. Plan hori egitean errespetatuko dira gaur egungo irratidifusio-emakidak; teknologia digital berriaren barruan eraldatu eta egokituko dira. Orobat, data hori baino sei hilabete lehenago, Gobernu Zentralak Europar Batasuneko estatuak koordinatzeko proposamena aurkeztu behar die Europako Kontseiluari eta Batzordeari, lurreko irratidifusio-zerbitzuak oro har eta batera digitalizatzeko.

Bestalde, eta berariaz Nafarroako Foru Komunitatearen gainean, Nafarroan irratiari buruzko araudi-esparruan edozein berritasun egiteko, nahitaez **egin beharko da arau bat, foru-komunitatean administrazio-emakida bidez frekuentzia-modulaziodunaren bidezko irrati-difusio soinudunaren gaineko araubide juridiko orokorra ezarriko duena**. Arau horrek, gainera, emakidaren ematea eta emakidadunak emanen duen zerbitzuaren prestazioa ere arautu behar ditu.

Beraz, komenigarri litzateke, 964/2006 Errege Dekretuak onartutako Plan Tekniko Nazionalen sartuta eta **esleitzeke diren frekuentzia berriak**

direla-eta, Foru Gobernuak aurreko dekretuek (1990 eta 1997koak) baino irismen handiagoa izanen duen beste dekretu bat egitea.

Foru Dekretu horrek bi alderdi arautu beharko litzuke: alde batetik, foru-komunitatearen lizentzia-ematea; eta, bestetik, irrati-kate esleipendunaren zerbitzu-ematea. Orobat, araudiak frekuentziaren ustiapenari buruzko gai guztiak arautu beharko ditu, eta berariaz aipatu beharko ditu honako hauek, besteak beste: titulartasunaren aldaketa, erabiltzeko lagatzea, kontratuak egiteko erregimena, zerbitzua ematean eragina izanen duten eta hirugarrenekin eginen diren lankidetzaz-hitzarmenetarako erregimena eta baimenak berritzeko erregimena. Kontuan izan behar da 1990eko eta 1997ko dekretuak atera zirenean, oraindik sortu gabe zegoela CoAN kontseilua. Horrenbestez, hurrengo arauan aintzat hartu beharko da, nahitaez, CoAN kontseilua badela eta 18/2001 Foru Legeak ematen dizkion eginkizun eta eskumenen barruan duen zeregina, frekuentzia-modulazioduneko uhin metrikoren bidezko irratidifusio soinudunaren zerbitzuaren araubide juridikoan.

8. KAPITULUA

IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN ETORKIZUNA

Teknologia digitalak goitik behera aldatu du ikus-entzunezkoen sektorea, eta hala egiten jarraitzen du. Irratia eta telebista analogikoa era tradizionalen ustiatu izan da orain arte; hau da, irrati-esparru urriaren ondorioz, eskaintza publiko eta pribatu murriztua egin izan da. Orain, berriz, irrati-eta telebista-seinaleen gehitze esponenzialera igaro gara, seinalea trinkotzeko gaitasunari esker. Trinkotze horrek edukiera eta kalitatea handitzen ditu. Orobat, Internet edukien hornitzaile gisa oldarka sartzek eta komunikazio-euskarriak ugaritzeak nabarmen bizkortu dute ikus-entzunezko edukien eskaintzaren ugaltzea.

Azkenaldian, komunikabideetan joera berriei buruzko albiste eta erreportaje asko egin da. Joera berri horiek, ziur aski, epe laburrean markatuko dute bai ikus-entzunezko bitartekoen aurrerapena, bai ikusleak telebistako edo irratiko programazioa berak eratzeko aukera ere, bere lehentasunen arabera.

Nolanahi ere, Deloitte aholkularitza-enpresaren 'Komunikabideen sektorearen 2010erako iragarpenak' izeneko Urteko Txostenean adierazitakoaren arabera, "2010ean ere, bideo- eta audio-eduki gehienak era linealean kontsumituko dira, hau da, hedabideen programazioaren arabera. Uste dugu hedabide tradizionalen bitartez kontsumituko dire-

la ikusiko diren telebista-programa guztien %90 baino gehiago eta audio-eduki guztien %80 baino gehiago." Hala ere, etorkizuneko kontsumoa orain ari da zehazten eta, hortaz, beharrezkoa da eza-gutzea epe ertain eta luzera zer joera izanen diren arrakastatsu.

8.1. TELEBISTAREN SEKTOREKO ETORKI-ZUNeko ILDOAK

Gaur egun, LTD ezarrita dagoenean, Espainian telebistaren etorkizuna bi bidetatik lantzen ari da: batetik, seinalea transmititzeko sistema berri horrek eskaintzen dituen aukerak guztiz lantzen ari da (telebista elkarreragilea eta bereizmen handiko telebista); eta, bestetik, modalitate berrietarantz egiteko joera dago, hala nola, hiru dimentsioko telebista, telebista mugikorra eta Internet bidezko telebista kontzeptuetarantz.

8.1.1. TELEBISTAREN BILAKAERAREN AUKERAK

Bereizmen handiko telebista edo, bestela esanda, HDTV (High Definition Television, ingelesez) telebista-formatu bat da, eta sistema tradizionalek baino kalitate digital handiagoan ematen ditu telebista-seinaleak. Hala ere, teknikoki ezinezkoa da telebista-kate guztiak (irekiak zein ordainpekoak) bereizmen handikoak izatea. Izan ere, hala balitz, irrati-esparruan erabilgarri dagoen eremua agortuko litzateke.

Gaur egun, Espainian HDTV kateak ikus daitezke, satellite, kable edo IP bidezko askotariko telebista-plataformen bitartez. Telebista irekia dela-eta, RTVE korporazioak baieztatu du 2010. urtean TVE HD kanala bereizmen handian abian jartzeko asmoa duela.

Dena den, oraindik etxe gutxi dago HDTV jasotzeko prestatutako telebistarekin. Orobat, itzalaldi analogikoa dela-eta, era masiboan merkaturatu dituzten deskodegailuak ere ez dira bateragarri formatu horrekin.

"Pizte digitala" hasi zenetik, **LTD bidezko elkarreraginari** buruz publizitate ugari egin da, baina ez da oso erabilia izan, eta duela bost urte inguru hasi ziren telebistatik bi norabideko komunikazio-zerbitzuen aukerak aintzat hartzen. Hala ere, telefono mugikorreko mezuen bitartez telebista-katearen eta ikus-entzulearen arteko elkarreraginaren errentagarritasunak eta mota horretako aplikazioen kostuak galgatu egin dituzte arlo horretan LTDak eskaintzen dituen aukerak ustiatzeko ekimenak.

Elkarreraginaren abantaila nagusia da telebistaren bitartez hainbat zerbitzu eskuratzeko aukera izatea, terminal bakarrarekin eta urrutiko kontrola-

rekin. Elkarreraginaren beste abantaila bat da erabiltzaileak berak erabaki dezakeela ea zerbitzu interaktiboetara eta elkarreraginari loturiko edukietara sartu nahi duen ala ez. Azkenik, telebistako elkarreraginak aukera ematen du gizarteko hainbat kolektiboren beharretara egokitutako zerbitzuak eskaintzeko, adina eta lekua alde batera utzita.

Nolanahi ere, eta bereizmen handiko telebistarekin gertatzen den bezala, Espainiako etxeetan instalatu dituzten deskodegailu gehienek ez dute aukerarik ematen aipatutako elkarreragina gauzatzeko. Horregatik, baldin telebista-operadoreek ez badute beren eduki elkarreragileen eskaintza erakargarri egiten, oso zaila izanen da ikus-entzuleek deskodegailuak aldatu eta era horretako zerbitzuetarako prestatutakoak erosteko erabakia hartzea.

2009an hiru dimentsioko film luzeek zinema-pantailetan izan duten arrakasta ikusita (eragin izugarria izan du Avatar filmak), itxura guztien arabera, 2010. urtetik aurrera, etxeetan **hiru dimentsioko telebista** sartzen hasiko da, pixkanaka. Nolanahi ere, Espainian, artean oraindik bereizmen handia hedatzeke dagoelarik, pentsatzekoa da teknologia hori, egiazki, oraindik urruti dagoen aukera dela. Dena dela, baldin azkenean lortzen bada produktu horren kontsumoa araupetzea, telebista-trantsizio historikoa bizi izanen dugula esan daiteke; zuri-beltzeko telebistetatik koloretakora iragaitearekin baino ez da alderagarri izanen.

Munduko telebista-edukien fabrikatzaile eta hornitzaile nagusiak dagoeneko hainbat proiektutan murgilduta daude, hiru dimentsioko telebista errealitate bihurtzea helburu hartuta. Espainian, 2010ean eta Digital+ enpresaren eskutik, hiru dimentsioko zenbait emisio pilotu egingen dira, enpresaren iPlus kanalaren bitartez. Lehena maiatzaren 29an egingen da, eta Enrique Bunburyren kontzertua emanen da. Horren ondotik etorriko dira zenbait film eta Espainiako futbol-selektzioak Hegoafrikako munduko txapelketan jokatu dituen partidetakoz batzuk.

Une honetan, **telebista mugikortasunean** sortzeko lanean ere ari dira. Telebista digitaleko modalitate berri horren ezaugarria da euskarriztat irrati-uhinak, lurreko uhinak edo satelliteak erabiltzen dituela. Eta telebista horren seinalea gailu edo ekipo mugikor edo eramangarrietan jasotzen da, hala nola, telefono mugikorrean, ordenagailu eramangarrian, PDAn, ibilgailuetan, trenetan, hegazkinetan eta abar.

Beraz, telekomunikazioen, ikus-entzunezko komunikazioaren eta informazioaren teknologien artean bateratzen den zerbitzua izanen da. Dena

den, oraindik zenbait gai ebazteke daude; besteak beste, gailuen baterien iraupena, pantailaren neurria eta estaldura-hutsegiteak.

Azkenik, aipatzekoa da **Internet bidezko telebista** ere. Telebistaz gozatzeko beste aukera bat da, baina sareen Sarearen bitartez. Gaur egun, dagoeneko ikusgai dago Interneten telebista tradizionalaren edukia, era libre eta legezkoan.

Gainera, telebistako eduki batzuk dagoeneko soilik Internet bidez eskura daitezke, ez baitira ematen kable, satellite edo lurreko sistemen bitartez. Nafarroan, badira bi operadore edukiak soilik Interneten eskaintzen dituztenak: Directa TV eta Pharmalmage.tv.

8.1.2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIORAKO ERA BERRIAK ARAUTZEA

Bai Europar Batasuna bai Espainia, hasi dira, dagoeneko, euskarri berriak eta telebista kontsumitzeko era berriak arautzen. Zehazki, Europar Batasunak Ikus Entzunezko Komunikazio Zerbitzuei buruzko 2007/65/EE Zuzentaraua eman du eta, Espainiak, Ikus Entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Legea, martxoaren 31koa.

Hortaz, **Europako 2007/65/EE Zuzentaruak** barruan hartzen ditu ikus-entzunezko komunikabide-zerbitzu guztiak (audiovisual media service). Zerbitzu horien gaineko erantzukizun editoriala komunikabide zerbitzu-emaileak du, eta zerbitzuon xede nagusia da programak ematea, komunikazio elektronikoko sareen bitartez, ikus-entzuleei, oro har, informazioa eman eta haiek entretenitu eta hezte aldera.

Beraz, aipatutako kontzeptuak biltzen ditu, alde batetik, telebista hedatzeko zerbitzu tradizionalak (television broadcasting), non programak aldi berean ikusteko moduan ematen diren, programatutako ordutegian; eta, bestetik, aurrez eskatuta ematen diren zerbitzuak edo eskatu ahalakoak (on-demand service), erabiltzaileari aukera ematen diotenak programak aukeratzea zerbitzu-hornitzaileak eskaintako programen katalogo batetik.

Bestalde, **Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak**, bere III. tituluari, atal bat sartu du “datozen teknologia berriak” direlakoei edo ikus-entzunezko komunikaziorako era berriei buruzkoa (telebista mugikortasunean eta bereizmen handiko telebista, esate baterako).

Nolanahi ere, oraindik guztiz garatu gabeko errealitatea denez, pentsa daiteke arautze horiek guztiak epe laburrean zaharkituta geratuko direla, eta ez dietela erantzunik emanen sektore horretako eskari eta beharrei. Teknologia hori guztiz gara-

tzen denean, autoerregulatu beharko dira bitartekoak, eta ikus-entzunezkoen sektoreko erakunde arautzaileek ere —CoAN kontseiluak eta Ikus Entzunezkoen Estatuko Kontseiluak, besteak beste— baterako arautzeak egin beharko dituzte.

8.1.3. DIBIDENDU DIGITALA

Ikus-entzunezkoen sektoreaz dihardugunean, nahitaezko geldiunea egin behar dugu “dibidendu digitalean”. Hala esaten zaie **telebista analogiko-ko emisioak amaitzean libre geratu diren frekuentzia-bandei**, LTD sei bat aldiz eraginkorragoa baita, irrati-esparruaren erabilera kontuan hartzen badugu.

Halaber, esparru hori hobeto aprobetxatzen denez, beste telebista-kanal batzuk ikusteko aukera izanen dugu laster, LTDaren bitartez. Horregatik, 2010eko martxoan Ministroen Kontseiluak Errege Dekretu bat onartu zuen, Estatuko operadore pribatuei multiplex osoa erabiltzeko aukera eman dien prozesua zehazteko. Prozesu horren bitartez, orobat, Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioak eta autonomia-erkidegoek bi multiplexetarako sarbidea izanen dute. Hala ere, horretarako, operadoreek LTD bultzatu eta garatzeko hartu dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

Aipatutakoa egiteko, mailaz mailako prozesu bat ezarri da. 2010eko ekainean has daiteke, eta 2011ko martxora arte iraunen du. Trantsizioa ez dela traumatikoa bermatuko du, ziurtatuko baitu operadore pribatuek uneoro izanen dutela transmisio-gaitasun bera.

Errege Dekretu horretan “dibidendu digitala” ere aipatu da. Hain zuzen, banda 790 MHz-etik 862 MHz-era libratzeko prozedura zehazten du, eta banda-tarte hori gordetzen du, nagusiki, komunikazio elektronikoko zerbitzu aurreratuak emateko, linean Europar Batasunarekin hitzartuko diren baterako erabilerak egiteko.

Dibidendu digitala osatzen duten frekuentziak egokiak dira **mugikortasuneko banda zabaleko zerbitzu berriak emateko**, estaldura zabala baitute hiriguneetan zein landa-inguruneetan. Horri esker, aurrerapen esanguratsua egingen litzateke arrail digitala deritzona murrizteko, eta kohesio ekonomiko eta sozial handiagoa izanen litzateke Espainian. Dibidendu digitala lagungarri izan daiteke hazkunde ekonomikoan, lanpostuak sortzeko eta produktibitatea gehitzeko. Europako Batzordearen arabera, Europar Batasunean banda zabaleko zerbitzu mugikorretarako dibidendu digitala erabiltzeak 150.000 eta 200.000 milioi euroko balio gehitzea izan dezake. Espainian, egoera horretan,

12.000 eta 16.000 milioi euroko balio gehitzea lor daiteke.

8.2. IRRATIAREN SEKTOREKO ETORKIZU-NEKO ILDOAK

Etorkizunean, irratan ere teknologia digitala ezarriko da, telebistan bezala. Horri esker, kalitate handiko eta interferenziarik gabeko soinua eskainiko da, baina ez hori bakarrik; hainbat kanal berri eta multimedia zerbitzu gehigarri ere erabilgarri izanen dira. Irrati digitala eta Internet bidezko irratia dira, gaur egun eta etorkizunean, sektorean aurrera egiteko bi aukera nagusiak.

8.2.1. IRRATI DIGITALA

Irrati digitala da aurrerapen teknologiko esanguratsuen, frekuentzia modulatu agertu zenetik, zalantzarik gabe **abantaila asko ekarri baititu, bai entzuleentzat, bai enpresentzat.**

Irrati-entzuleei kalitate handiko seinalea jasotzeko aukera eman die, CDen kalitatearen antzekoa; gainera, FM frekuentziako seinaleek mugikorretan izan ohi dituzten etenaldi- eta distortsio-arazoak konpondu ditu eta informazio askotarikoagoa eskaintzen du. Gainera, testu- eta multimedia-zerbitzuak ere erabilgarri jarri ditu. Bestalde, irrati-kateei aukera eman die 'Frekuentzia bakarreko sareak' taxutzeko. Sare horiei esker, programa bat frekuentzia berean entzun daiteke estaldura duen lurralde osoan eta, beraz, ez da zertan berriz hargailua sintonizatu; orobat, irrati-esparrua optimizatu denez, emisio gehiago egin daitezke eta, gainera, sarbide zaileko tokietara ere iristen dira.

Teknika digitalen erabileraren bidez frekuentzia modulatuaren prestazioak hobetzeko interesa sortu zen eta, horren eraginez, 1990eko hamarkadan, hainbat ekimen teknologiko sortu ziren. Esate baterako, Europan DAB (Digital Audio Broadcasting) ekimena sortu zen; Estatu Batuetan, IBOC (In-band On-channel); eta zenbait herrialdetan, DRM (Digital Radio Mondiale). Beraz, irratia digitalizatzeko lehenengo arazoa izan zen sistema unibertsaletik (FM) hainbat sistemara igaro behar zela. Hori dela-eta, gero eta digitalagoa den mundu honetan, irratia analogikoa da oraindik ere, eta zalantza asko dago irratia digitalizatzeko urratsa nola eta noiz egingen den erabakitzeke orduan.

Ikus daitekeenez, irrati digitala ezartzeko prozesua oso astiro doa aurrera. 1999. urtean, Espainian, Lurreko Soinuzko Irrati-difusio Digitalaren Plan Tekniko Nazionala onartu zen, 1287/1999 Errege Dekretuaren bitartez. 2000ko martxoaren 10ean, Ministroen Kontseiluak hamar emakida

esleitu zituen irrati digitalaren zerbitzu publikoa ustiatzeko, zeharkako kudeaketa bidez. Berez, irrati-kate nagusiek digitalean ematen dute 2001. urteaz geroztik, seinale hori jasotzeko prestatuta oso hargailu gutxi dagoen arren. Era horretako oso hargailu gutxi dago, irrati-tresnek seinale digitala deskodetzeko deskodegailua behar dutelako, telebistek LTDra behar duten bezala. Ondorioz, eta bultzada ausartik egin ez denez, irratia analogikoa jasozen da oraindik, gero eta digitalagoa den mundu honetan.

Dirudienez, frekuentzia modulatu digitalizatzeko DAB teknologia aplikatu behar da. Uhin ertain, luze eta laburren trantsizio digitala, aldiz, DRM sistemara bideratuta dago. Sistema horrek aukera ematen du irrati digitalaren seinalea hedatzeko gaur egun uhin ertainak erabiltzen dituen frekuentzia-bandetan. Eta, gaur egun, sistema horrekin saiakuntzak egiten ari dira bai Europan bai eta Espainian ere: hain zuzen, 2007ko maiatza eta urria bitartean, proba pilotu handi bat egin zen Cadena SER irrati-katearen emisioekin, Euskal Herrian. **DRM sistemari esker, lortzen da uhin ertaina FM bat bezala entzutea (kalitate aldetik) eta ematen den programaren datu osagarriak transmititzea.** Alde horretatik, nabarmentzekoa da Radio Nacional de España, Cadena SER eta Cadena COPE irrati-kateek egindako hitzarmena, 'Bultzatu Uhin Ertain Digitala' izenduna. Hitzarmen horren bitartez, Espainia osoan uhin ertaineko emisioen hedapena eta jasotzeko aukera indartzeko konpromisoa hartu dute.

Hala ere, DAB sistemaren sartzea moteldu egin da Europa osoan, Erresuma Batuan salbu. Administrazio zentralak noiz bultzatuko zain daude, eta bai irrati-sektorearen bai irrati digitaleko hargailuen fabrikatzaileen geldotasunaren ondorio ere bada. Onartu berri den Ikus Entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorren (7/2010 Legea, martxoaren 31koa) arabera, Espainian bultzada hori **Lurreko irratidifusio soinudunaren zerbitzua osorik digitalizatzeko plan teknikoak** ekarriko du. Espainiako Gobernuak onartu behar du plan hori, aipatutako legea indarrean sartu eta hurrengo 18 hilabeteetan; hots, **2011ko azaroaren 1a** baino lehen.

Plan hori egiteko prozesuan errespetatuko dira gaur egun irrati-difusio soinudunaren zerbitzuak — bai uhin ertainen eta frekuentzia-modulaziodun uhinen bidez, bai lurreko irratidifusio soinudun digitalaren bitartez— kudeatzeko indarrean diren emakidak. Emakida horiek egokitu eta eraldatu egingen dira, teknologia digital berriaren barruan. Orobat, urtebeteko epean, Gobernu Zentralak **Europar Batasuneko estatuak koordinatzeko**

proposamena aurkeztuko die Europako Kontseiluari eta Batzordeari, dagokionaren arabera, lurreko irratidifusio-zerbitzuak **oro har** eta batera **digitalizatze**ko.

8.2.2. IRRATIA INTERNET BIDEZ

Internetek goitik behera aldatu du gizarte-komunikabideen bilakaera, eta baldintzatu ere egin du. Komunikabide horietako bat da irratia, jakina. Hala ere, irratia arazo nabarmen bat izan du, Interneten izaeran oinarritua: Sarea ikusi eta irakurtzeko sortu zen, eta ez entzuteko. Horregatik egin dute lekua hobeto prentsak eta telebistak, irratia baino. Eta horri esker ere, irratia egunetik egunera birsortzen da Interneten.

Beraz, esan daiteke, oraingoz, irratia nabarmen lantzen ari dela Interneten. Alde batetik, irratikate handiek —publiko zein komertzialek— hazkuntza-estrategien alde egin dute, bai eta Interneten komertzial eta produktu berriak sortzearen alde ere. Eta, beste aldetik, irratikate berrien eklosioa ikusten ari gara; irratikateak sortzen ari dira, irratia Internet bidez zabaltzea oso erraza delako; zerbitzaria —doakoa edo ordaindua— eta software egokia baino ez da behar.

Interneten egin den lehenengo irratigarapen handia **entzute lineala edo streaming irratia** izan da. Horri esker, aukera dago zuzenean entzuteko operadoreak irratidialaren bitartez ematen duen programazioa bera. Aurrerapen hori egin ahal izan da teknologia berri baten aplikazioari esker. Aplikazio horren bitartez, multimedia artxiboak entzun edo ikus daitezke Interneten, aurrez deskargatu beharrik gabe. Aldi batez buffer batean biltegitza baino ez da behar.

Orobat, irratikate handi guztiek —komertzialek zein publikoek— eskaintzen dute **podcast** zerbitzua Horretarako, operadoreek beren irratiprogramak edo programen zati jakin batzuk jartzen dituzte beren webgunean, eta sindikazio-sistema baten bidez banatzen dute. Sistema horrek harpidetza

egiteko aukera eskaintzen die entzule interesdunei, nahi dutenean entzun ditzaten; normalean, irakurgailu eramangarri batean.

Bestalde, hainbat operadore, Interneterako programazioa aurkezteaz gain, lanean ari dira **Sare-rako produktu desberdinak** sortzeko; produktu horiek neurri eskatu ahalako entzungaiak entzuteko aukera emanen dute, besteak beste.

Aurrerapen hori, batez ere, musika-irratiformulan ari da gertatzen, baina orotariko irratia ere gero eta etekin handiagoa ateratzen die aukera horiei. Beraz, operadoreak, entzuleen lehentasunak zein diren edo zein gai duten gogokoen jakiten duenean, automatikoki eratuko du askotariko musika-gaien emisio jarraitua, Interneteko irratikanal horren bitartez. Bestelako zerbitzu gehigarriak ere eskaintzen dira, hala nola, diskoaren karatula ikustea, abeslariaren diskografia ikustea edo plataforma batetik abestia erostea. Halakoen adibide dira bi webgune hauek: www.lastfm.com eta www.icatfm.cat.

Azken finean, Internetek irratidifusiorako eskaintzen dituen aukerek baldintzatzen dute, ez soilik irratikate handien merkataritza-estrategia, bai eta irratia kontzeptu tradizionala eta irratiproduktu berrien sortzea ere. Horrenbestez, baiezta daiteke komunikabide baten metamorfosia ikusten ari garela; multimedia alderdi berri bat lantzen ari da eta, aldi berean, eta garrantzitsuena, beharbada, alde elkarreragilea. Alegia, entzuleari aukera ematen dio emisioan era aktiboan parte hartzeko, zer entzun nahi duen aukeratzeko eta non eta noiz entzun nahi duen erabakitzeko.

CoAN KONTSEILUAK 2009AN EGINIKO JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Ondorio gisa, eta CoAN kontseiluak 2009an egin duen jardueraren adierazle nagusiak era zehatz eta xehatuagoan erakusteko xedearekin, honako taula hau egin dugu:

Ikus-entzunezkoei buruzko legedia zenbateraino bete den Nafarroan	
Foru-komunitatean emititzeko titulu gaitzailea duten <u>telebisten</u> programazioaren jarraipena (urteko 365 egunetan, orduko 24 orduetan)	36
<ul style="list-style-type: none"> • Aldizkako 36 txosten kuantitatibo, edukien jarraipenari buruz. 	
Titulu gaitzailea duten <u>irratien</u> programazioaren jarraipena, grabazioak eginda eta operadoreei grabazioak eskatuta	19
<ul style="list-style-type: none"> • 19 txosten, edukien jarraipenari buruz. 	
Programazio-dukietako alderdi zehatzei buruzko txostenak	10
<ul style="list-style-type: none"> • “Call tv” izeneko programen emisioak egiteko operadoreak betekizunak zenbateraino bete dituen adierazten duen txostena. 1 • Telebistako eskualdeko operadoreek babes indartuko zerrendak zenbateraino bete dituzten ikusteko azterlana. 2 • Eskualdeko telebistetako programazio-generoei buruzko azterlana. 2 • Eskualdeko telebistetan eman dituzten Nafarroako lanen bolumenari buruzko azterlana. 2 • Europako lanen emisio-kuotei buruzko azterlana. 1 • Nagore Laffageren heriotzagatiko epaiketari eskualdeko telebistetako albistegietan eman zaion trataeraren analisiari buruzko txostena. 1 • Telecinco kateko “Sálvame” programari buruzko txostena. 1 	
Publizitate-dukietako alderdi zehatzei buruzko txostenak	4
<ul style="list-style-type: none"> • 2009ko apirilean telebistako eskualdeko operadoreen emisioetan aurkitutako publizitate-gertakariei buruzko txostenak, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 11.5 artikuluan xedatutakoari lotuta. 2 • Publizitate eta telesalmentarako utzitako emisio-denborak betetzeko egutegia, telebistako eskualdeko operadoreentzat. 1 • Publizitate politikoaren definizioaren, izaeraren eta publizitate horrek Espainian dituen ondorio nagusien eta Nafarroan duen aplikazioaren gaineko txostena. 1 	
Bestelako txostenak	3
<ul style="list-style-type: none"> • Ikusleen informazio-eskubidea (Internet bidez eguneroko programazioa ikusteko sarbideari lotuta) telebistako eskualdeko operadoreek zenbateraino betetzen duten erakusten duen txostena. • Publizitatearen arloan Ikus Entzunezko Komunikabideen Zerbitzuei buruzko Zuzentarauak ekarri dituen berritasunei buruzko txostena. • Ikus Entzunezkoen Estatuko Kontseiluaren izaerari buruzko azterlana. 	
Administrazio publikoek ikus-entzunezko komunikabideekin egin dituzten hitzarmenen eta publizitate instituzionalaren jarraipena eta kontrola	2
Zehatzeko ahalmena gauzatzeko ekintzak	15
<ul style="list-style-type: none"> • Zehapen-espeditentea (artxibatuta) 1 • Aldez aurreko informazioa emateko aldiak (artxibatuta) 4 • Eskakizunak 10 	

Nafarroako ikus-entzunezko bitartekoen eta herritarren arteko harremana	
Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa	
• Aurkeztu eta izapidetu diren erreklamazioak.	94
• Tokiko erakundeen erreklamazioak.	13
• Loturiko erreklamazioak.	3.706
“Familia eta ikus-entzunezko pantailak 2009” alfabetatze-kanpaina	
• Prestakuntza-tailerrak, “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpaina.	33
• Gela birtuala sortu eta gela birtualarekin proba pilotua egitea.	
Programazio-dukien analisia (programa zehatzak)	6
Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideek eskaini dituzten dukien kalitaterako ekarpena	
CoAN kontseiluak eta telebistako eskualdeko operadoreek egindako hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko telebista-emisioetan baterako arautzea sustatu eta aplikatzeko	
• Batera arautzeko kodea, Nafarroan ikus-entzunezko dukiak kalitatezkoak izan daitezen.	
Autoerregulazioa sustatzea Nafarroako operadoreen artean	
• Haurrak babesteko ordutegian emandako dukien kalitatearen agiria.	2
• Eskualdeko telebista-operadoreen barne-aniztasunari buruzko azterlana, informazio-programetan emandako albisteen geografia-eremua eta gaiak kontuan hartuta.	
Interneteko Kalitate Agentziaren parte-hartzea (bilerak)	2
Ikus-entzunezkoen sektorearen bultzada Nafarroan	
Urtean zehar egindako ekintza nagusiak	
• Nafarroako Gobernuako Erakunde Harremanetarako kontseilariarekin batera, 4/2009 Foru Dekretua (urtarrilaren 19koa, telebistan adingabeak babesteko mekanismoen erabilera arautzen duena) onartu eta aurkeztu.	
• “Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa” aurkeztu (1.190 galdeketa).	
• Nafarroako Ikus-entzunezkoen Sektorearen Panoramika 2008 (Urteko Txostenean sartu da).	
LTDaren seinalea jasotzeko arazoaren gaineko informazioa bidali zuten Nafarroako Foru Komunitateko udalerrriak	226
LTD zabaltzeko ekintzak	
• Dokumentuak.	3
• Komunikabideetan emandako elkarrizketak.	14
Lurreko Telebista Digitalari buruzko foroaren bilerak	3

Bestelako ekintzak eta jarduera-adierazleak	
CoAN kontseiluaren 2009-2011 Plan Estrategikoa onartu.	
• Helburu estrategikoak.	5
• Helburu operatiboak.	12
• Jarduerak.	40
CoAN kontseiluak egindako bilerak	22
Administrazioak eskatutako txostenak	4
• Ustiapena lagatzeari buruzko txostenak.	2
• Irrati-kateen programazio-edukiei buruzko txostenak.	2
Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasun Erregistroa (eguneratzeak)	2
CoAN kontseiluaren argitalpenak	4
• Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008.	1
• Nafarroako Ikus Entzunezkoen Kontseilua. Eginkizunak eta Europan ikus-entzunezkoen sektorearen arautzean dituen eskumenak.	1
• 2008. Urteko Txostena argitaratu (bertsio osoa <i>online</i> eta bertsio laburtua paperean).	2
Arautzearen arloko bestelako agintariekiko harremanak	6
• Erakunde Arautzaileen Europako Plataformaren 29. eta 30. bilerak (Tallin eta Dresden egin ziren).	2
• Iberiar Penintsulako Ikus Entzunezkoen Erakunde Arautzaileen II. Topaketa.	1
• Ikus Entzunezkoen Kontseilu autonomikoen eta Telekomunikazio eta Informazioaren Gizarteko estatu-idazkariaren arteko bilera.	1
• Bilerak Ikus Entzunezkoen Kontseilua sortzeko izapideak egiten hasi diren autonomia erkidegoen ordezkariekin.	2
CoAN kontseiluak antolatutako bestelako ekitaldiak	3
• “Nafarroan ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea” izenpetzea.	
• “Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa” aurkeztea.	
• <i>La educación como industria del deseo</i> liburua aurkeztea.	
Bilerak sektoreko erakundeekin, pertsonekin eta tartean diren eragileekin	16
• Eskualdeko operadoreekin (2 baterako bilera eta 6 banakako).	8
• Baterako bilerak kazetariekin, 2008. urtearen azterketa egiteko, bideo korporatiboa aurkezteko eta 2009rako aurreikusitako ekintza nagusien berri emateko.	3
• Sektoreko beste eragile batzuekin.	5
Jardunaldi, ikastaro eta biltzarretara joatea eta parte hartzea	15
Nafarroako Parlamentuan agerraldiak	1

